



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.02.11

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria

Nerea Letamendia Belloso

Jokin Azkue Arrastoa

Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea :

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko otsailaren hamaikan, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosaldeko enpresek eta Udalek langabezian dauden pertsonak kontratatzeko 2018ko ekitaldirako Lanbidek sustatutako dirulaguntzen 1. ordainketa.
3. Onartzea Tolosako Udalaren atxikimendu-protokoloa Administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin, 2017ko martxoaren 24an, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, 2018ko abenduaren 5ean, sinatu dituen lankidetzahitzarmenekiko.
4. Baliozkotzat jotzea Tolosako Udaleko Herritarrarentzako Arreta Zerbitzua —U DATE— berritzeko eta egokitzeko obra-kontratuaren lizitazio-egintza eta kontratua esleitzea.
5. Baliozkotzat jotzea Tolosako



TOLOSAKO
UDALA

- Amarotz auzoko "AUZOETXE" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko obra-kontratuaren lizitazio-egintza eta kontratua esleitzea.
6. Baliozkotzat jotzea Tolosako Olarrain Auzo-Elkarteko eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko obra-kontratuaren lizitazio-egintza eta kontratua esleitzea.
 7. Onartzea hautespen-irizpideak, Udal honetako plantilan hutsik dagoen Administrazio Orokorreko teknikari lanpostua bitarteko izaeraz hornitzeko, eta jardunbideari hasiera ematea.
 8. Onartzea kontratazio-jardunbidea, Tolosako Udalerrian poltsa konpostagarriak erosteko hornidura kontratua esleitzeko, eta lizitazioari hasiera ematea.
 9. 83/2018 eta 1/2019 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko urtarrilaren 28an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. ONARTZEA TOLOSALDEKO ENPRESEK ETA UDALEK LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO 2018KO EKITALDIRAKO LANBIDEK SUSTATUTAKO DIRULAGUNTZEN 1. ORDAINKETA.

Aurrekariak:

I.- 2018ko ekainaren 13an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak Enplegua Sustatzeko Toki-ekintzetarako 2018ko ekitaldiko laguntza deialdiari buruzko ebazpena eman zuen (2018ko ekainaren 13ko EHAA, zk.: 3179).



II.- 2018ko uztailaren 11n, Tolosaldeko enplegu plana aurrera eramateko foroa elkartu zen eta bertan eskaera onartu zen.

III.- 2018ko uztailaren 11n, Tolosako Udalak, eskualdeko udalen izenean, Lanbideko bulegoetan egin zuen aipatutako eskaera, 231765 zenbakiarekin.

IV.- 2018ko urriaren 3an, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren bidez, dirulaguntza onartutzat eman zen, R/18-LPE-04G espediente zenbakiarekin. Eskaeran eginiko proposamena onarturik, Tolosako Udalari 299.007,84 € dagozkio eta dirulaguntzaren banaketa azaltzen da:

MOTA	LANPOSTUAK	KOPURUA
1. ENPLEGUA SUSTATZEA	2	25.000 €
2. KONTRATAZIO LAGUNTZAK	40	240.000 €
3. KONTRATAZIO LAGUNTZAK	6	34.007,84 €
GUZTIRA		299.007,84€

V.- 2018ko azaroaren 9an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen iragarkian, Tolosa eskualdeko langabetuak kontratatzeke dirulaguntza deialdia argitaratu zen.

VI. Tolosako Udalak 164.454,30 € jaso zituen, dirulaguntzaren % 55, 2018ko urriaren 11n Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2018-2019ko Toki Ekintzetarako ematen dituen laguntzen deialdiaren babesean.

VII.- 2018ko abenduaren 20 eta 28an Gobernu Batzarrak 1., 2. eta 3. motako dirulaguntzen banaketak onartu zituen. Eskainitako lanpostu guztiak banatu eta onartu ziren.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondorengo dirulaguntzak bertan behera geratzea, ondoren azaltzen diren arrazoiengatik.

ENPRESA	LANPOSTUAK	DIRU-LAGUNTZA
---------	------------	---------------



		KOPURUA
1. JON CIPITRIA OLANO (EGUZKITZA)	1	6.000€
2. ISASTEGI SAGARDOTEGIA,S.L.	1	6.000€
3. JOSE IGNACIO AGUIRRE	2	12.000€
4. PRECOCINADOS LANBROA, S.L.	1	6.000€
GUZTIRA	5	30.000€

1) Jon Cipitria Olano: hautagaiak lanpostuari uko egin dio eta enpresak ez du bere ordeztu beste inor kontratatu nahi.

2) Isastegi Sagardotegia,S.L.: enpresak berak uko egin dio azken orduan kontratazioari.

3) Ignacio Aguirre Eguen: arrazoi pertsonalengatik ostatua ixtea erabaki du.

4) Precocinados Lanbroa, S.L.: deialdiko 6.puntuan aipatzen diren ondorengo bi baldintzak ez betetzeagatik:

- Kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den pertsona lanean hasi aurre-aurreko 3 hiletan enpresak batez beste duen langile kopuruaren gainean.

- Kontratazioak egingo dira langabetuekin, baldin eta kontratazio unean badaude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta eta 2018ko ekainaren 21ean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan errolatuta, lehentasunezkoa delarik Tolosaldea eskualdeko udalerriri batean egotea.

BIGARRENA.- Garaikoetxea Txakolindegia, SL-ri lehen ordainketa ez egitea, izan ere, langileak kontratua moztu du eta ordeztu baten bila dabilta; beraz, kontratazio berria egin bitartean ez zaio ordainduko.

HIRUGARRENA.- Hurrengo taulan agertzen diren enpresa eta entitatei lehen ordainketa egitea eskatutako dokumentazioa jaso eta baldintzak betetzen dituztelako. Hau da, dirulaguntzaren % 55 ordaintzea. 1. motakoak 1100.422.01.241.00 partidatik eta 2. motakoak eta 3.ekoak 1100.471.01.241.00 partidatik.



TOLOSAKO
UDALA

ENPRESA		KONTRATATUTAKO PERTSONA		AURREIKUSITA KO KOSTUA	DIRULAGUN TZA	ORDAINKET A (%55)
1 MOTA						
ALTZOKO UDALA		A. J.		12.512,50 €	12.500,00 €	6.875,00 €
TOLOSALDEA GARATZEN		L.G.L.		13.027,44 €	12.500,00 €	6.875,00 €
		LANBIDEK ONARTUA	25.000,00 €	25.539,94 €	25.000,00 €	13.750,00 €
2 MOTA						
CHROMA BRANDING, S.L.		M.I.S.		13.819,19 €	6.000,00 €	3.300,00 €
REPARACION DE MAQUINARIA SAIZAR, S.L.		A.P.E.		9.003,13 €	6.000,00 €	3.300,00 €
M JESUS OÑATIVIA GONZALEZ DE URIARTE		M.P.S.		9.242,44 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ANA M SAN SEBASTIAN OYARZABAL		D.M.M..		11.340,30 €	6.000,00 €	3.300,00 €
EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK, S.L.		I.A.S.		6.217,68 €	4.663,26 €	2.564,79 €
Jon Cipitria Olano (EGUZKITZA)		M.L.S.		12.496,51 €	6.000,00 €	3.300,00 €
AMAYA AGUERRI LEUNDA		M.P.O.G.U		9.152,33 €	6.000,00 €	3.300,00 €
KODIKLINIK, S.L.		L.L.S		13.590,94 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		A.B.U.		13.590,94 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ORIAMO, S.L.		L.A.C.		15.669,36 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		E.C.M.		16.594,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ARRETA LOGIKA, S.L.		S.F.B.		10.210,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		B.L.T.		10.210,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ABALTZISKETA LOGIKA, S.L.		L.I.G.		10.210,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
GARAICOETXEA TXAKOLINDEGIA, S.L.		J.V.K.		9.968,52 €	6.000,00 €	3.300,00 €
JATORKIN-ALNAHDA ASOCIACION		J.L.S.		9.018,36 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ION MARICHALAR AGUIRREZABALA		X.A.A.		9.100,98 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ARIN SUBIJANA Y ASOCIADOS, S.L.		P.B.Z.		8.420,82 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		J.S.A.		13.016,05 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		X.G.I.		13.016,05 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		M.A.S.		13.016,05 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		J.M.C.Z.		13.016,05 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LEIRE VEGAS MEDINA (IPAR ROLLER)		S.F.M.		8.276,63 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ALEX ARRIETA QUINTANA		G.A.B.		12.925,38 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ETXEBEDENT SLP		L.B.B.		9.313,50 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ARRITOKIETA ZUGARRAMURDI IRIGOYEN		I.L.A.		9.523,30 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ASOC SORDOS TOLOSALDE GOIERRI GA		G.S.U.		8.164,25 €	6.000,00 €	3.300,00 €
IÑAKI BEGIRISTAIN OIARTZABAL		U.U.E.		11.229,70 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LARRETA EZ		A.G.G.		8.644,48 €	6.000,00 €	3.300,00 €
DIONISIO ORMAZABAL, S.A.		M.A.M.		14.070,30 €	6.000,00 €	3.300,00 €
ALIMENTACION ECEIZABARRENA SL		J.A.S.A.		10.068,98 €	6.000,00 €	3.300,00 €
MUEBLES GARCES, S.L.		L.L.Z.		10.919,40 €	6.000,00 €	3.300,00 €
OTEGUI ERAIKUNTZAK, S.L.		J.I.U.S.		17.311,24 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LAIATZEN, S.L.		J.J.B.O.		15.472,29 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		LANBIDEK ONARTUA	240.000,00 €	385.839,15 €	202.663,26 €	111.464,79 €
3 MOTA						
APLICACIONES PARA CONTROL DE FLUIDOS, S.L.		L.S.C.		13.331,59 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LANDANET ZERBITZUAK, S.L.		I.A.E.		14.697,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LANDANET ZERBITZUAK, S.L.		M.C.P.S.		14.697,00 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LASER ORIA, SL		E.B.G.		16.280,12 €	6.000,00 €	3.300,00 €
LASER ORIA, SL		J.A.A.		14.557,03 €	4.007,84 €	2.204,31 €
LASER ORIA, SL		J.J.I.D.		17.180,01 €	6.000,00 €	3.300,00 €
		LANBIDEK ONARTUA	34.007,84 €	90.742,75 €	34.007,84 €	18.704,31 €



TOLOSAKO
UDALA

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Enplegu Departamentuari.

3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ATXIKIMENDU-PROTOKOLOA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREKIN, 2017KO MARTXOAREN 24AN, ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN, 2018KO ABENDUAREN 5EAN, SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO.

AURREKARIAK

Lehena.- Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak, besteak beste, betebeharrak hauek dituzte: herritarrei kalitateko zerbitzuak esleitzea, baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzen eta erabiltzen saiatzea eta administrazio-izapideak sinplifikatzea. Horrez gain, beste administrazio publiko batzuekin batera, helburu partekatuak lortzeko jarduten dutenean, parte-hartzearen, objektibotasunaren, gardentasunaren eta lankidetzaren printzipioak bete behar dituzte. Kasu zehatz honetan, EAeko Administrazioaren eta Tokiko Administrazioaren arteko elkarlana ezartzen da. Hala izan behar duela agintzen da lege hauetan: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean (1. eta 4. artikulua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean (3. eta 140. artikulua). Horretarako, 140.2 artikulua ezartzen duenez, tokiko administrazioarekiko harremanak tokiko araubidearen oinarriko legeen bitartez arautuko dira, III. tituluan araututa ez dauden gaietan.

Helburu horiek lortzeko badira, ezinbestekoa da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 144.1.e artikuluan zehazten den administrazio publikoaren arteko lankidetzaren sendotzea, lankidetzaren alderdi sinatzaileek beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak ere kontuan hartuta, lege beraren 144.2 artikulua araberak. Zehatz-mehatz, informazioa elkarri trukatzeko sistemak eraiki behar dira, administrazio-prozeduran dokumentuak edo datuak elkarri behar ez izateko, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan – Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legea – ezarrita dagoenarekin bat etorrira.

Arazoi hauetan oinarrituta, Tolosako Udalak, Lankidetzaren Hitzarmen bat izenpetu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko xedearekin. Halaber, 2018. urtean beste hitzarmen bat sinatu zen, elkarrengandikotasun hori zabaltzeko, bertan autonomia erkidegoarekin ez ezik, estatuaren administrazioa ere barnean geratzen baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak Estatuko administrazio orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenaren ondorioz.



Tolosako Udalak hitzarmen hori onartu eta sinatu zuen momentutik, hura martxan jartzeko momentura arte, arazo tekniko batzuk egon ziren, gainera, 2018. urteko abenduan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beste hitzarmen bat sinatu dute udalen atxikimendu protokoloak errazteko, ondorioz, Udalak aurretik sinatuta zeukan hitzarmena bertan behera geratu da eta beharrezkoa da hitzarmen berri bat sinatzea, Aldundia bitartekari dela.

Bigarrena.- Helburu hauek lortzeko, beharrezkoa da administrazio elektronikoaren garapenean azkar eta eraginkortasunez aurrera egitea, honako bi lege hauek benetan betetzeko: urriaren 1eko 40/2015 Legea (administrazio publikoen araubide juridikoari eta funtzionamenduari dagokienez) eta urriaren 1eko 39/2015 Legea (14. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazio publiko guztiak behartuta daude harreman elektronikoak ezartzera edo ezartzen laguntzera). Hori dela-eta, ezinbestekoa da administrazio guztien eskura jarritako zerbitzu elektroniko batzuk lehenbailehen edukitzea, lege ezarritako betebeharra benetan betetzea lortu ahal dadin.

Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuan, otsailaren 21ekoan, ezarritakoaren arabera, datuak eta dokumentuak ez emateko eskubidea baliatzen laguntzeko, Administrazioak gainerako administrazio publikoekin hitzarmenak egitea sustatuko du, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikuluan ezarritakoarekin bat. Erregelamendu horretako 68. artikuluan ezarrita dago hitzarmen horietan zenbait prozedura ezarriko direla, organo lagatzaileek ziurta dezaten ea aipatutako eskubidea erabili den, sarbide-eskaeren xede izan diren datu edo dokumentuei dagokienez.

Era berean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek estatu- eta foru-administrazioekin izenpetutako hitzarmenen bidez formalizatutako zerbitzuetan, eta geroago erabakitzen direnetan parte har dezaten, beharrezkoa da mekanismo egoki bat jartzea, aipatutako toki-erakundeek aipatutako hitzarmenak erraz balia ditzaten, baina, edonola ere, zerbitzu bakoitzean erabiltzaileari ezarritako betebeharrak beti beteko direla bermatzen duen prozedura baten bidez.

Hirugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Estatuko Administrazio Orokorrak 2017ko martxoaren 24an lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatu zuten, administrazio elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko. Lankidetzaz hitzarmen horrek 2017ko urriaren 18ko hitzarmena ordeztu du. Halaber, 2018ko abenduaren 5ean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatu dute udalen atxikimendu protokoloa onartzeko eta errazteko.

Laugarrena.- Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 141.1.c artikulua ezartzen du gainerako administrazioei eman behar dietela haien eskumenak baliatuz egiten duten jarduerari buruz edo herritarrek arlo bati buruzko informazio osoa eskuratu ahal izateko behar duten informazioa.



Ondorio horietarako, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 142.a artikulua ezartzen duenaren arabera, honako hauek dira administrazio publikoen elkarlan-betebeharretik eratortzen diren betebeharrak: eskabidea jaso duen erakunde publikoak edo entitateak dituen informazio, datu, agiri edo frogabideak ematea, baldin eta administrazio eskatzaileak halakoak eduki behar baditu bere eskumenak baliatzeko; administrazio-informazioko sistema integratuak sortu eta mantentzea, lurralde nazional osoan administrazio-jardueraren esparru batzuei eta besteei buruzko datu eguneratu, oso eta iraunkorrak edukitzeko; laguntza-betebeharra beste administrazio batzuek beren eskumenak hobeto baliatzeko egindako eskariei arreta egiteko, bereziki administrazio horien jarduera beren lurralde-eremutik kanpo hedatzen bada.

Sinatzaileek datu jakin batzuk behar izaten dituzte beren egitekoak burutzeko eta esleituta dauzkaten eskumenak erabiltzeko. Beraz, administrazio publikoen arteko harremanetan elkarri laguntzeak nagusi izan behar duela kontuan hartuta eta beraien jardunean eta harremanetan baliabide publikoak eraginkortasunez esleitzeko eta erabiltzeko printzipioa eta herritarrei zerbitzu eraginkorra eman behar diren printzipioa aplikatuta, alderdiek uste dute beren arteko datu-trukea arautu behar dutela. Trukean baliabide informatikoak edo telematikoak erabiliko dira, eta, administrazio publikoek dauzkaten datuak direnez, herritarrei dagozkien bermeak eta eskubideak errespetatu beharko dira.

Bosgarrena.- Horregatik, bi alderdiek uste dute zerbitzuak linean ematea sustatu behar dela, zerbitzuen, izapideen, prozeduren eta informazioaren elkarreragingarritasuna handitzeko.

Horren harira, sinatzaileek, beren eskumenen eremuetan, beharrezkotzat jo dute Administrazioaren jabetzako sistemen eta aplikazioen arteko koordinazioa sustatzea. Sistemen eta aplikazioen berrerabilera ezin handiagoa izango da, administrazioen eta interes publikoaren premiak, hobekuntzak edo eguneratzeak gauzatzeko helburua ezarrita. Horretarako, sistemak eta aplikazioak alderdien eskura jarriko dira.

Erabiliko den elkarreragingarritasunerako sisteman, paperezko ziurtapenen edo ziurtagirien orde, datuak trukatzeko plataformak edo horretarako prestatu diren beste sistema elektroniko batzuk baliatuko dira. Hori horrela, administrazio publikoen sareak elkarrekin konektatuta egongo dira, bertako informatika-mekanismoak bateragarriak izango dira, eta administrazio publikoen sareetako transmisio telematikoa gauzatuko da. Horrelako komunikazio-sare batean informazio-sistemak elkarrekin konektatuta egongo dira, administrazioen arteko informazioa eta zerbitzuak trukatzeko aukera egongo da, eta interesdunek datuak erabili ahal izango dituzte (datuok erabilgarri badaude), beren eskumenen arloko izapideak, prozedurak eta jarduketak gauzatzeko. Horrek guztiak bat etorri behar du bere araudi arautzaileekin eta abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan –Datu Pertsonalen Babesari buruzko Legea da, hain zuzen ere– eta lege hori garatzeko araudietan ezarritakoarekin; betiere segurtasuna, osotasuna eta erabilgarritasuna ezin hobeto bermatuta. Alde horretatik, kontuan hartu behar da urriaren 1eko 40/2015 Legearen 158.1 artikuluan ezarritakoa; zehatz-mehatz, administrazio publikoek aplikazioen aurkibide



eguneratuak edukiko dituztela, libreki berrerabiltzeko, Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionalean xedatuta dagoenaren arabera. Aurkibide horiek elkarreragingarriak izan beharko dute, Estatuaren Administrazio Orokorraren aurkibide orokorrarekin bateragarritasun informatikoa eta konexioa bermatzeko.

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarrita dago herritarrek eskubidea daukatela edozein administrazio eginiko dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, araudi arautzaile aplikagarriak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak edo interesdunak edozein administraziori jada eman dizkion datuak edo dokumentuak ez emateko.

Seigarrena.- Alderdiek elkarreragingarritasunerako sistema ezarri nahi dute; eta sistema horren bidez elkarri trukatuak dioten informazioa, sistemako euskarriak eta aplikazioak seguru, zainduta eta ondo araututa egongo dira. Administrazio publikoek horiek guztiak kontuan hartu beharko dituzte, erabaki teknologikoak hartzen dituztenean.

Helburu horiek eraginkortasun handiagoz lortzeko, eta administrazio publikoen arteko lankidetzaren eta koordinazio-printzipioei jarraituta, erabaki hau bereziki baliagarria da bi administrazio sinatzaileentzat.

AZTERKETA JURIDIKOA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzaren arautzen ditu, dituzten xedek ahalik eta era onenean bete ditzaten.

Aipatutako Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzaren hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituen apirilaren 6ko 7/2016 Legearen 100. artikulua ondoko hau xedatzen du: «1.– Toki-erakundeek lankidetzaren-hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko. 2.– Lankidetzaren-hitzarmenen helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzea; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondarezko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.



3.– Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusi ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inor berez ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea.”

Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak lankidetzaren hitzarmenak arautzen ditu, ondoko definizioarekin: **“1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.**”

No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles. Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.”

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasunari dagokionez, 40/2015 Legearen 48. artikulua bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:

- Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua)
- Hitzarmenak aldean adostasuna azalduz perfektionatzen direla (48.8 artikulua)

Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxieneko materiak 40/2015 Legearen 49. artikulua xedatzen ditu, ondokoak, hain zuzen:

- a) Sujetos que suscriben el convenio y la capacidad jurídica con que actúa cada una de las partes.*
- b) La competencia en la que se fundamenta la actuación de la Administración Pública, de los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de ella o de las Universidades públicas.*
- c) Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto para su cumplimiento, indicando, en su caso, la titularidad de los resultados obtenidos.*
- d) Obligaciones y compromisos económicos asumidos por cada una de las partes, si los hubiera, indicando su distribución temporal por anualidades y su imputación concreta al presupuesto correspondiente de acuerdo con lo previsto en la legislación presupuestaria.*



TOLOSAKO
UDALA

- e) *Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento.*
- f) *Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes. Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios.*
- g) *El régimen de modificación del convenio. A falta de regulación expresa la modificación del contenido del convenio requerirá acuerdo unánime de los firmantes.*
- h) *Plazo de vigencia del convenio teniendo en cuenta las siguientes reglas:*
 - 1.º *Los convenios deberán tener una duración determinada, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.*
 - 2.º *En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.*

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.

Jardunbideari dagokionez, Lankidetzak hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko gardentasun atarian Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean xedaturikoarekin bat, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

ESKUMENA.- Lankidetzak hitzarmen hau onartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarena da eta ez Udaltzaren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedatzen baititu azken honen eskumenak eta horien artean ez dago xede honetako hitzarmenak egitearena.

Aipatu bezala, hitzarmen hau 39/2015 Legeak xedatutakoa betetzeko tresna da eta honen bidez baliatzen ditu tokiko erakundeak, izapidetze guztietan harreman elektronikoak ezartzen.

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek Estatuko Administrazio Orokorrekin



TOLOSAKO
UDALA

2017ko martxoaren 24an eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatu dituen lankidetzaz-hitzarmenekiko Tolosako Udalaren atxikimendu protokoloa onartzea, ondoko klausulen eta hitzarmenaren I. eta II. Eranskinetan xedatutakoaren arabera (argitaratua EHAAn, 2018ko abenduaren 21ean, 6271 zenbakian):

Lehenengoa. Xedea.

- 1.- Hitzarmen honen xedea da zehaztapen eta baldintza orokorrak finkatzea, sinatzaileek eta beraien menpeko edo beraiei lotutako erakundeek ematen dituzten administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbide teknologikoak, bigarren klausulan azaldutakoak, hain zuzen, batera aprobetxa ditzaten.

Hitzarmena sinatzearen helburuak honako hauek dira: kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea, baliabide eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztea, onura publikoko jarduerak egiten laguntzea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeak betetzea eta administrazio-bikoiztasunak ezabatzea. Horretan, honako artikulua hauek bete beharko dira: urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.3 artikulua; Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen lehenengo artikuluan jasotako idazkeraren arabera; eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua.

- 2.- Hitzarmen honen xedea, halaber, idazki honen I. eranskinean zehazten den protokoloan azaldutako prozedura zehaztea da. Prozedura horren bidez, hitzarmen honen bigarren klausulan zerrendatutako soluzio teknologikoetan edo etorkizunean eguneratzen edo aldatzen direnetan interesa duten toki-erakundeei sarbidea emango die Foru Aldundiak. Foru Aldundiak, edonola ere, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatuko du.

Bigarrena. Aplikazio-eremua.

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, baita horren menpeko edo berari lotutako erakunde publikoek ere, sarbidea izango dute Estatuaren Administrazio Orokorraren (Administrazio Digitaleko Idazkaritza Nagusia) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaz-hitzarmenean, administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri ematekoan, 2017ko martxoaren 24an sinatutakoan, hain zuzen, azaldutako administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbide teknologikoek emandako funtzionaltasunetara.
- 2.- Gainera, aurreko paragrafoan adierazitako alderdiek sarbidea izango dute II. eranskinean jasotzen den Administrazio Elektronikoko Zerbitzuen Katalogoan zehazten diren zerbitzuak ematea ahalbidetzen duten administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbide teknologikoek ematen dituzten funtzionaltasunetara.



3.- Arestian zehaztu diren oinarritzko irtenbideak garatzeko erabilitako teknologia eguneratu ahalko da edo eraginkorragoak diren beste batzuek ordeztu ahalko dute, hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritako Jarraipen Batzordearen erabakiaren bidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenaren ondorioz, aurreko zenbakian zerrendatu diren aplikazioak edo sistemak zaharkituta geratzen direnean edo dagozkien zehaztapen tekniko eta segurtasunekoei eragiten dieten arau-aldaketak gertatzen direnean.

Hirugarrena. Eremu subjektiboa.

1.- Hitzarmen honek hedatuko ditu bere ondorioak Gipuzkoako Foru Aldundira, EAEko Administrazio Orokorrera eta horiei atxikitak dauden edo horien mendekoak diren erakunde publikoetara.

2.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeei eta horiei atxikitako edo horien mendeko erakunde publikoei dagokienez, eta I. eranskin gisa erantsi den protokoloan xedatzen den prozeduraren bidez, Foru Aldundiak hauetarako sarbidea emango die izena emandako toki-erakundeei:

a) Estatuko Administrazio Orokorraren (Administrazio Digitaleko Idazkaritza Nagusia) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzak-hitzarmenean (administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbideak elkarri ematekoan, 2017ko martxoaren 24an sinatutakoan) azaldutako administrazio elektronikoko oinarritzko irtenbide teknologikoek emandako funtzionaltasunak.

b) Dagokion toki-erakundeak administrazio elektronikokoan hautatzen dituen oinarritzko irtenbide teknologikoek ematen dituzten funtzionalitateak, II. eranskinean jasotako Administrazio Elektronikoaren Zerbitzuen Katalogoan zehaztutako zerbitzuak ematea ahalbidetzen dutenen artekoak.

Laugarrena. Hitzarmena sinatzen duten alderdien betebeharrak orokorrak.

Oro har, alderdi sinatzaileek betebeharrak hauek hartzen dituzte:

- Hitzarmen honen bigarren klausulako 2. zenbakian ezarritako irtenbide teknologiko guztietarako edo horietako baterako sarbidea ematea beren lurralde-eremuko erakunde publikoei, haiei lotutakoei edo haien menpekoei eta toki-erakundeei, baita haien menpeko erakunde publikoei ere, gai horretan esleituak dituzten laguntza teknikoaren eskumenen barruan, I. eranskineko Protokoloan finkatutako prozeduraren bidez.

- Beren eskumenen eremuaren barruan, hitzarmen honetan jaso eta II. eranskinean azaltzen diren irtenbide teknologikoen zehaztapen teknikoak betetzea.

- Hitzarmen honetan zerrendatutako oinarritzko irtenbideetan sartzeko behar diren konektibitate eta hedapeneko zeregin teknikoak egitea.

- Bigarren klausulan azaldutako irtenbide teknologikoak kudeatzen dituzten erakundeekin hitzartzea lotutako zerbitzuen errendimendu- eta monitorizazio-probak egitea, eskuragarri daudela bermatzeko.



- Irtenbideak zuzenki erabiltzea, baimenduta daudenerako baino erabili gabe.
- Hitzarmen honetan sartutako irtenbide teknologikoen sistema erabiltzaileak eta aplikazioak administratzeko prozesuak bateratzeko ezarritako prozedurei jarraitzea.
Hitzarmen honetan jasotako irtenbide elektronikoei lotutako informazioa eta sistemak behar bezala babesteko behar diren segurtasun-neurriak hartu eta betetzea, erabakitzen den segurtasun komuneko politikari jarraikiz.
- Hala xedatzen duten irtenbide teknologikoetarako, zerbitzuak emateko behar den informazio legal, administratibo eta teknikoa nahiz herritarrek ezagutu behar duten beste edozein informazio deskribatzen duten agiriak eguneratzen laguntzea.
- Alderdi sinatzaileak edo haien hornitzaileak ez daude behartuta alderdi sinatzaileek, toki-erakundeek edo lotutako edo menpeko erakunde publikoek, hitzarmen honen edukian aurreikusitako esku-hartzeetan, bertan jasotzen diren oinarritzko irtenbideak txarto erabiltzearen edo eskuragarri ez egotearen ondoriozko zeharkako kalte-galerak gain hartzera.

Bosgarrena. Hitzarmena sinatzen duten alderdien berariazko betebeharrak.

Hitzarmen honek hizpide duen irtenbide teknologiko bakoitzari berariaz dagokionez, alderdi sinatzaileek II. eranskinean zehaztutako erantzukizunak hartzen dituzte gain ezarritako irtenbide teknologiko bakoitzarentzat.

Seigarrena. Baldintza teknikoak eta funtzionalak.

Hitzarmen honek hizpide duen irtenbide teknologiko bakoitzaren baldintza tekniko eta funtzionalak ezarritako irtenbide teknologiko bakoitzari buruzko II. eranskinean zehazten dira, nolana ere, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasun-eskema Nazionala arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak eta hori garatzeko arauak xedatutakoa betez, baita hauek ere, bereziki: datu-bitartekaritzako Protokoloen Elkarreragingarritasunaren Arau Teknikoa onartzeko den Administrazio Publikoetako Estatuko Idazkaritzaren 2012ko ekainaren 28ko Ebazpena eta segurtasun-eskema nazionala (ENS), urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan araututakoa, baliabide elektronikoak erabiltzean aplikatu behar den segurtasun-politika zehazten duena.

Zazpigarrena. Jarraipen Batzorde Teknikoa.

Hitzarmen honetan eta beren eranskinetan adostutakoaren kudeaketa, jarraipen, zaintza eta kontrolerako, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzordeko kide izango dira Eusko Jaurlaritzak izendatutako bi lagun eta Foru Aldundiak izendatutako beste bi.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen jarduera izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikuluraino ezarritakoaren arabera.

Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen funtzioak honako hauek dira:



- Arestian aipatutako hitzarmenean adostutakoaren kudeaketa, jarraipena, zaintza eta kontrola.
- Hitzarmen honen ondoriozko interpretazio- eta betetze-arazoak ebaztea.
- Egokitzat jotzen dituen hobekuntzen edo aldaketen formalizazioa proposatzea.

Gainera, Jarraipen Batzordeak Hitzarmenaren funtsa ukitzen ez duten aldaketa teknikoak erabaki ahal izango ditu.

Jarraipen Batzordeak ohiko bilkura bat izango du urtean. Horrez gainera, bilkura berezia egingo du edozein kidek eskatzen duenean.

Bilerak baliabide elektronikoez egin ahal izango dira.

Zortzigarrena. Araubide ekonomikoa.

Lankidetzeta-hitzarmen honek ez du sortzen sinatzaileen arteko kontraprestazio ekonomikorik. Hala ere, alderdiek hitzarmen hau sinatuz gain hartu dituzten betebeharrak betetzeko behar diren inbertsioak egin beharko dituzte, materialki posiblea baldin bada.

Alderdi sinatzaileek justifikazio-memorian aztertu egingo dute delako jardueraren beharra eta egokitasuna, eragin ekonomikoa baita horren kontratuz kanpoko izaera ere, aplikatu beharreko araudiari jarraituz.

Bederatzigarrena. Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen honen indarraldia lau urtekoa da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, Hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea. Hala eta guztiz ere, sinatzaile guztiak aho batez ados jarriz gero, Hitzarmena azkendu ahal izango dute.

Hamargarrena. Hitzarmena aldatzea.

Edozein alderdik noiznahi proposatu ahal izango du Hitzarmena berrikustea, egokitzat jotzen diren aldaketak egiteko. Hitzarmenaren edukia aldatzeko, sinatzaileek ados egon beharko dute.

Klausulak berrikusten badira, eranskina Hitzarmenari erantsiko zaio, alderdiek sinatutako gehigarri batean.

Halaber, gehigarri-prozedura horren bidez, alderdiek adostu ahal izango dute lehenengo klausularen I. eranskineko 2. zenbakian eta bigarren klausulan aurreikusitako II. eranskinari gehitzea hitzarmena indarrean dagoen bitartean sortzen diren eta haren xedearekin zerikusia duten administrazio elektronikoko funtzionaltasun



eta zerbitzu berriak, baina horrek ez du ekarriko hitzarmen honen klausulak berrikustea.

Hamaikagarrena. Araubide juridikoa.

Hitzarmen honen manu arautzaileak dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulurainokoetan ezarritakoa baita aplikagarria duen gainontzeko araudia ere.

Hamabigarrena. Gatazkak ebaztea.

Hitzarmen hau sinatuz, alderdiek konpromisoa hartzen dute hura betetzean sortzen diren gorabeherak elkarrekin adostuta konpontzeko.

Hitzarmena garatzean eta betearaztean alderdien arteko auziren bat sortzen bada eta seigarren klausulan ezarritako Jarraipen Batzordeak ezin badu konpondu, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziora joko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

Hamahirugarrena. Hitzarmenak azkentzea.

Hitzarmen hau azkenduko da bere helburua osatzen dituzten jarduerak betetzen direnean edo hura suntsiarazteko arrazoirik balego.

Honako hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- Indarraldia bukatzea, Hitzarmenaren luzapena adostu gabe.
- Alderdiek aho batez horrela adostea.
- Alderdiren batek ez betetzea hartutako betebeharrak eta konpromisoak.
- Erabaki judizial batek horren deuseztasuna adieraztea.
- Legeetan jasotako beste arrazoiren bat.

Hamalagarrena. Alderdiek hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez direnean aplika daitezkeen ondorioak eta ez betetzeagatik egon daitezkeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.

Hitzarmena sinatu duen alderdi batek hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea suntsiarazteko arrazoa izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 51.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten alderdietako edozeinek errekerimendua jakinarazi ahalko dio bete ez duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan urratutzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak. Jarraipen Batzordeko buruari emango zaio errekerimendu horren berri.



TOLOSAKO
UDALA

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan badirau, salatu zuen alderdiak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, eta, horren ostean, hitzarmena suntsiarazitzat joko da.

Hitzarmena ez-betetzeagatik suntsiarazten bada, egiaztatzen diren kalteen ondoriozko kalte-ordaina ezarri ahalko da.

Hamabosgarrena. Komunikazioa.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmenaren sinatzaileak aipatzeko bakarka zein batera hitzarmenaren gaiaz egiten dituzten komunikazio-egintza guztietan.

Hitzarmen hau Estatuko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zaio.

Hamaseigarrena. EAEko Administrazio Publikoaren eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien artean eta Foru Aldundiek elkarrekin informazioa baliabide elektronikoen bitartez trukatzeari begira sinatu duten lankidetzahitzarmenaren interpretazioa (2015eko abenduaren 3ko EHAA).

EAEko Administrazio Publikoaren eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien artean eta Foru Aldundiek elkarrekin informazioa baliabide elektronikoen bitartez trukatzeari begira sinatua duten lankidetzahitzarmenak (2015eko abenduaren 3ko EHAAn argitaratuta) indarrean jarraituko du, eta hitzarmen honetan eta beronen eranskinetan jasotzen diren klausulak ezeztatzen ez dituen guztian ezarri ahalko da.

Hamazazpigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruan zerbitzuak elkarri emateko sinatutako hitzarmenaren interpretazioa.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sinatuta dauden lankidetzahitzarmenek indarrean jarraituko dute, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin lankidetzahitzarmenak sinatzeko ereduarekin bat eginez sinatu badira, eta hitzarmen honetan eta beronen eranskinetan jasotzen diren klausulak ezeztatzen ez dituen guztian ezarri ahalko dira (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetako zuzendariaren apirilaren 12ko 50/2017 Ebazpenaren bidez argitaratu zen eredu hori, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruan zerbitzuak elkarri emateko).

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta eranskinak eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmena argitaratzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta gardentasun atarian.



LAUGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa Departamentuari.

4. BALIOZKOTZAT JOTZEA TOLOSAKO UDALEKO HERRITARRARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA —Udate— BERRITZEKO ETA EGOKITZEKO OBRA-KONTRATUAREN LIZITAZIO-EGINTZA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzua —Udate— berritzeko eta egokitzeko obrak.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OASI0006

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehen.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an onartu zuen, besteak beste, Tolosako Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzua —Udate— berritzeko eta egokitzeko obren proiektua. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jasotzen da espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eraikinaren jabetza Tolosako Udalarena da eta Udal Ondasunen erroldan inskribatua dago 006180 matrikula zenbakiarekin.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

Tolosako Udalak Herritarren Arreta Zerbitzua (Udate) berregituratu eta zerbitzu integral bat sortu nahi du. Izan ere, helburua da zerbitzua indartzea eta zabaltzea. Horretarako, 2018ko abenduaren 4an Udalbatzak zerbitzu horren Ordenantza berriari hasierako onespena eman zion.

Zerbitzu berriaren beharren programa hauxe da:

- 4 lanpostu finkoak Udateko langileentzat.
- 1 errefortzu-lanpostua.
- 1 herritarrentzako lanpostua (beraien kabuz edo laguntzarekin izapideak egin ahal izateko).
- Bilera-gela (herritarrekin biltzeko gunea).
- Itxaroteko gunea: Herritarrentzako eserlekuak, haurrentzako txokoa, txanda hartzeko makina, txanda ikusteko pantaila.
- Izapideak egiteko makina (Sarrerako bestibulu batean, ordutegi zabalagoa izateko aukera emateko).



- Komunak, instalazioak.

Bigarrena.- Egungo egoera

Aurkeztutako proiektuaren memorian horrela definitzen da:

2.4.1. Egungo egoera

Eraikinaren beheko solairuak publikoa den alderdi bat du eta bertan, sarreran kokatuta dagoen espazio garden batean, herritarraren arretarako bulegoa kokatzen da. Sarrera honek altuera bikoitza du eta baita pribatua den alderdi bat ere, bertan hainbat lanpostu eta bilera gela txiki bat kokatzen dira. Bi alderdi hauek igogailuak, komunek eta RAC-ak osaturiko gune zentral batek banatzen ditu. Beheko solairuak gaur egun dauzkan azalera honakoak dira:

BEHEKO SOLAIRUA	
SARRERA NAGUSIA	4,00 m ²
HERRITARREN ARRETA ESPAZIOA	80,35 m ²
LANPOSTUAK	35,00 m ²
BILERA GELA	15,35 m ²
KOMUNA 1	2,55 m ²
KOMUNA 2	2,98 m ²
RAC	3,45 m ²
BANATZAILEA	4,58 m ²
GARBIKETA	3,38 m ²
ALDAGELA	6,72 m ²
SARRERA	1,57 m ²
GUZTIRA	159,92 m²

Lehenengo solairuan hainbat bulego daude, bilera gela bat eta baita distribuzioa egiteko eta igogailura sarbidea ematen duen gune bat ere.

Lehenengo solairuak gaur egun dauzkan azalera honakoak dira:

LEHEN SOLAIRUA	
LANPOSTUAK 1	13,62 m ²
LANPOSTUAK 2	14,32 m ²
LANPOSTUAK 3	38,21 m ²
BILERA GELA	13,57 m ²
BANATZAILEA	34,58 m ²
GUZTIRA	114,31 m²

Hirugarrena.- Egokitze Proposamena:

Aurkeztutako proiektuaren memorian horrela definitzen da:



2.4.2. Estado reformado

Se propone una redistribución de los espacios basadas en la función administrativa y de atención al ciudadano actual del centro. Por un lado, en planta baja se realizará la demolición de la tabiquería actual que permita la apertura de casi toda la planta consiguiendo un gran espacio de atención al público y reduciendo los espacios cerrados en la parte trasera del edificio junto al hueco de ascensor. Asimismo, mediante un único distribuidor se ubicarán dos baños, uno de ellos accesible, un pequeño almacén y la sala de reuniones. Conjuntamente, se conformará un armario junto al ascensor para colocar las instalaciones auxiliares. Además, se pasará el acceso principal a la entrada situada en la fachada hacia el palacio Aranburu por lo que se modificará la carpintería existente, conformando un pequeño volumen acristalado con doble puerta que funciona como un pequeño hall donde se podrán realizar gestiones rápidas en una máquina dispuesta para ello. Por otra parte, en la planta primera únicamente se reubica junto al hueco de la escalera el espacio destinado al RAC anteriormente situado en planta baja. Además, sobre el murete se realizará un cerramiento de vidrio que permita independizar la climatización de esta planta con la de planta baja.

Las superficies resultantes tras la reforma son las siguientes:

BEHEKO SOLAIRUA	
SARRERA NAGUSIA	5,27 m ²
HERRITARREN ARRETA ESPAZIOA	54,18 m ²
SARBIDE ETA ITXARON GUNEA	58,49 m ²
BILERA GELA	11,05 m ²
KOMUNA 1	4,70 m ²
KOMUNA 2	3,40 m ²
BILTEGIA	2,96 m ²
BANATZAILEA	3,71 m ²
ARMAIRUA	1,03 m ²
GARBIKETA	3,38 m ²
ALDAGELA	6,72 m ²
SARRERA	4,00 m ²
GUZTIRA	158,90 m²

LEHEN SOLAIRUA	
LANPOSTUAK 1	13,62 m ²
LANPOSTUAK 2	14,32 m ²
LANPOSTUAK 3	38,21 m ²
BILERA GELA	13,57 m ²
BANATZAILEA	31,57 m ²
RAC	2,59 m ²
GUZTIRA	113,89 m²



TOLOSAKO
UDALA

Laugarrena.- Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzua —Udate— berritzeko eta egokitzeko obrak, erreforma lanak direla esan daiteke.

Bosgarrena.- 2018ko abenduaren 26an egindako txosten tekniko baten bidez hasiera eman zitzaion Tolosako Udaleko herritarrarentzako arreta zerbitzua —Udate— berritzeko eta egokitzeko obra kontratatze jardunbideari.

Seigarrena.- Espedientea eta klausula administratibo partikularren zein baldintza teknikoen pleguak 2018ko abenduaren 28an onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Egun berean argitaratu zen lizitazioaren deialdia Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratazailearen Profilean argitaratu zen.

Klausula administratiboaren pleguan xedatutakoarekin bat etorrira, CPV: 45200000-9 kodeekin tipifikatuta dagoen kontratu honek honako aurrekari hauek ditu:

- prozedura: irekia sinplifikatua
- tramitazioa: arrunta
- loteak:ez

Zazpigarrena.- Behin eskaintzak aurkezteko epea amaituta, ondorengo enpresak izan ziren proposamenak aurkeztu zituztenak:

- JOSEBA ZUBILLAGA SESTORAIN (44647814-F)
- CONSTRUCCIONES AIERBE, S.L. (B-20756268)
- URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L.(B-20868071)
- CONSTRUCCIONES ECHAIDE,S.A. (A-75048397)
- GOITU ERAIKUNTZAK. S.L. (B-20928131)

Zortzigarrena.- 2019ko urtarrilaren 23an, Kontratazio-Mahaiak erantzukizunpeko adierazpena eta zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideen eskaintza jasotzen zituen gutun-azal “bakarra” ireki zuen. Aipatutako enpresek, BAPParekin bat etorriz, aurkeztu zuten dokumentazioa. Baina JOSEBA ZUBILLAGA SESTORAIN eta URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L. enpresek aurkeztutako proposamenetan akatsak antzeman ziren. Aurreko guztia aintzat harturik, enpresa guztiei errekeritu zitzairen dokumentazio zuzena aurkez zezaten, luza ezin zitezkeen 3 eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Bestalde, GOITU ERAIKUNTZAK. S.L. enpresak aurkeztutako proposamenean ez zuen kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen, eta, hori betetzea derrigorrezkoa zenez, Kontratazio-Mahaiak enpresa lizitaziotik kanpo uztea erabaki zuen.

Bederatzigarrena.- 2019ko urtarrilaren 30ean, Kontratazio-Mahaiak kontratazio teknikariak urtarrilaren 29an egindako txostena aho batez onartu zuen, non ziurtatzen zuen aipatutako epearen barruan URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L. enpresak, errekeritu zitzaion bezala, zeuden akatsak zuzendu zituela eta, bestalde, JOSEBA ZUBILLAGA



SESTORAINek, berriz, ez zituela zuzendu. Hori horrela, puntuazioa ondorengoa izan zen:

Puntuak	Prezioa, BEZik gabe	Gauzatze-epea	Bermealdiaren luzapena	Guztira
CONSTRUCCIONES AIERBE S.L.	58,49	0	10	68,49
URKAIZ ERAIKUNTZAK S.L.	80	0	10	90
CONSTRUCCIONES ECHAIDE S.A	74,98	0	10	84,98

Hamargarrena.- Puntuazioa ikusirik, Kontratazio-Organuari kontratua URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L. (IFZ: B-20868071) enpresari esleitzea proposatu zitzaion, zenbateko honekin: ehun eta hogeita hamazazpi mila ehun eta laurogei euro eta hirurogeita hamasei zentimo (137.180,78 €) —nagusia—, gehi % 21 —BEZa—, zeina baita, hogeita zortzi mila zortziehun eta zazpi euro eta laurogeita hamasei zentimo (28.807,96 €); beraz, guztira, ehun eta hirurogeita bost mila bederatziehun eta laurogeita zortzi euro eta hirurogeita hamalau zentimo (165.988,74 €). Halaber, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu zezan errekeritu zitzaion.

Hamaikagarrena.- Behin errekeritutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren, 2019ko otsailaren 4an kontratazio-teknikariak dokumentazioa egokia zela esaten zuen bere txostenean eta kontratua aipatutako enpresari esleitzea proposatzen zuen.

Hamabigarrena.- 2019ko otsailaren 6an, Kontratazio-Mahaia bildu eta aipatutako txostena aho batez onartuta, Kontratazio-Organuari proposatu zion erreferentziako kontratua URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L. (IFZa: B-20868071) enpresari esleitzea.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Baliozkotzat jotzea Tolosako Udaleko herritarrarentzako arreta zerbitzua —Udate— berritzeko eta egokitzeko obra kontratuaren lizitazio egintza, eta erreferentziako kontratua URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L. (IFZa: B-20868071) enpresari esleitzea honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa. Nagusia: ehun eta hogeita hamazazpi mila ehun eta laurogei euro eta hirurogeita hamasei zentimo (137.180,78 €).
BEZa (% 21): hogeita zortzi mila zortziehun eta zazpi euro eta laurogeita hamasei zentimo (28.807,96 €).



Guztira: ehun eta hirurogeita bost mila bederatziehun eta laurogeita zortzi euro eta hirurogeita hamalau zentimo (165.988,74 €).

- Epea: Sei aste, zuinketaren egiaztapen akta egiten denetik.
- Bermealdia: 6 urte.

BIGARRENA- Esleipena enpresa lizitatzailerak guztiei jakinaraztea.

HIRUGARRENA- Ebazpena Euskadiko Kontratatzaileraren Profilean argitaratzea.

LAUGARRENA- Kontratua formalizatzea, 15 laneguneko gehieneko epean, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

BOSGARRENA- Erabakia jakinaraztea Hirigintza Departamentuari, Kontuhartzailtzari eta Kontratazio Atalari.

5. BALIOZKOTZAT JOTZEA TOLOSAKO AMAROTZ AUZOKO "AUZOETXE" ERAIKIN OSOA ETA ANBULATORIOKO LOKALA ZATIKA BERREGOKITZEKO OBRA-KONTRATUAREN LIZITAZIO-EGINTZA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Amarotz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko obra-kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumen Departamentua.
Espedientea:	2018OABI0002

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non idal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena. Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 17an egindako bilkuran, aho batez onartu zuen, besteak beste, Tolosako Amarotz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko proiektua. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa zen zuinketa-akta jaso zen espedientearen, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera. Behin jardunbide osoa burututa, eskaintzak



aurkezteko epean enpresek ez zuten eskaintzarik aurkeztu eta, ondorioz, 2018ko urriaren 31n Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuen **huts deklaratzeko aipatutako lizitazioa**.

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz eta obren beharra ikusirik, 2018ko abenduaren 17an Hirigintza Departamentuko buruak egindako txostenarekin berriro martxan jarri zen obraren lizitazioa. Horrek ondorio dakar Tolosako Amaroitz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko obra-kontratua jasotzen duen proiektua berdin mantenduko dela eta bertan aldaketarik ez dela egin beharko; beraz, aipatutako proiektuak aginduko du lizitazio jardunbidea honetan ere.

Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jasotzen da espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

Auzoetxe eraikinaren berregokitzeak barnealdea erabat eraberritzea du helburu. Eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, fatxadetan esku hartuko da, kanpoko arotzeria aldatuz leiho-oholen ordez pertsianak jarritz, eta fatxadak dituen kalteak konponduz, margo-lanak egiteko azkenik.

Auzoetxek, eraberritu ondoren, egun duen erabilera bera izango du. Esku-hartze honen xedea hainbat aldaketatan oinarritzen da: besteak beste, eraikinaren instalazioak hobetzea; barne antolamendua egungo beharretara egokitzea; erosotasuna bermatzeko isolamendua hobetzea; akaberak aldatzea; kanpoko aroztegiak ordezkatzea; eta leiho-oholen ordez pertsianak jartzea. Nahiz eta trenkada gehienak mantendu eta egun dauden instalazio gehienak erabili, eraikuntzak erabateko aldaketa izango du, itxurari eta erosotasun baldintzei dagokienez.

Anbulatorioko esku-hartzearen helburua da hau osatzen duten eskakizun eta instalazioak irisgarritasun araudira (68/2000 Dekretua) egokitzea. Ateen zabalerek gutxienez 90 cm-ko tartea izan dezaten, lau ate aldatu egingo dira. Gainera, egungo bainugelak bota egingo dira, gelaurre eta bainugela irisgarri bat eraikitzeko. Horietan, hurrenez hurren, oztoporik gabeko 180 cm eta 150 cm-ko diametroko zirkunferentziak inskribatzea posible izango da. Iturgintzako, saneamenduko eta argiteriako instalazio berriak egingo dira, dagokien guneeetan.

Hirugarrena.- 2018ko abenduaren 17an egindako txosten tekniko baten bidez hasiera eman zitzaion Tolosako Amaroitz auzoko "auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko obra kontratatzekeo jardunbideari.

Laugarrena.- Espedientea eta klausula administratibo partikularren zein baldintza teknikoen pleguak 2018ko abenduaren 20an onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Lizitazio deialdia egun berean argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen.



TOLOSAKO
UDALA

Klausula administratiboen pleguan xedatutakoarekin bat etorrira, CPV: 45215222-9 kodeekin tipifikatuta dagoen kontratu honek honako aurrekari hauek ditu:

- prozedura: irekia
- tramitazioa: arrunta
- loteak: loterik gabe

Bosgarrena.- Behin eskaintzak aurkezteko epea amaituta, UZTURPE, S.L. (B-20211900) enpresak bakarrik aurkeztu zuen proposamena.

Seigarrena.- 2019ko urtarrilaren 14an, Kontratazio-Mahaiak A gutun-azala ireki zuen. Aipatutako enpresak BAPParekin bat etorritz aurkeztu zuen dokumentazioa, baina DEUCa betetzean akatsak zeuden. Hori aintzat harturik, enpresari errekeritu zitzaion dokumentazioa zuzen zezan, luza ezin zitekeen 3 eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Zazpigarrena.- 2019ko urtarrilaren 21ean, Kontratazio-Mahaiak B gutun-azala ireki zuen eta kontratazio-teknikariak urtarrilaren 16an egindako txostena aho batez onartu zuen, non ziurtatzen zuen aipatutako epearen barruan zeuden akatsak zuzendu zituela UZTURPE, SL enpresak, errekeritu zitzaion bezala,.

Zortzigarrena.- 2019ko urtarrilaren 28an, Kontratazio-Mahaiak C Gutun-azala ireki zuen eta Kontratazio-Organoari erreferentziako kontratua UZTURPE, S.L. (B-20211900) enpresari esleitzea proposatu zion, zenbateko honekin: berrehun eta laurogeita zazpi mila zazpiehun eta hirurogeita sei euro eta hogeita lau zentimo (287.766,24 €) —nagusia—, gehi % 21 —BEZa—, zeina baita hirurogei mila lauhun eta hogeita hamar euro eta laurogeita hamaika zentimo (60.430,91 €); beraz, guztira, hirurehun eta berrogeita zortzi mila ehun eta laurogeita hamazazpi euro eta hamabost zentimo (348.197,15 €). Halaber, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu zezan errekeritu zitzaion.

Bederatzigarrena.- Behin errekeritutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren, 2019ko otsailaren 5ean kontratazio-teknikariak dokumentazioa egokia zela esaten zuen bere txostenean eta kontratua aipatutako enpresari esleitzea proposatzen zuen.

Hamargarrena.- 2019ko otsailaren 6an, Kontratazio-Mahaia bildu eta aipatutako txostena aho batez onartuta, Kontratazio-Organoari proposatu zion erreferentziako kontratua UZTURPE, S.L. (B-20211900) enpresari esleitzea.

Aurreko guztia aintzat harturik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Baliozkotzat jotzea Tolosako Amaro azoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta ambulatarioko lokala zatika berregokitze obra-kontratuaren lizitazio-egintza eta erreferentziako kontratua UZTURPE, S.L. (B-20211900) enpresari esleitzea honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa: Nagusia berrehun eta laurogeita zazpi mila zazpiehun eta hirurogeita sei euro eta hogeita lau zentimo (287.766,24 €).
BEZa (% 21): hirurogei mila laurehun eta hogeita hamar euro eta laurogeita hamaika zentimo (60.430,91 €).
Guztira: hirurehun eta berrogeita zortzi mila ehun eta laurogeita hamazazpi euro eta hamabost zentimo (348.197,15 €).

- Epea: 18 aste, zuinetaren egiaztapen akta sinatzen denetik.
- Bermealdia: 6 urte.

BIGARRENA.- Esleipena enpresa lizitzaile guztiei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Ebazpena Euskadiko Kontratazailearen Profilean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Kontratua formalizatzea, 15 laneguneko gehieneko epean, adjudikazioa hau jakinarazi den egunetik hasita.

BOSGARRENA.- Erabakia jakinaraztea Hirigintza Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Kontratazio Atalari.

6. BALIOZKOTZAT JOTZEA TOLOSAKO OLARRAIN AUZO-ELKARTEKO ERAIKINAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO OBRA-KONTRATUAREN LIZITAZIO-EGINTZA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

kontratuaren xedea:	Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OASI0005

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren



arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

2.- Aurrekariak

Lehena.- Alkate-udalburuak, 2018ko irailaren 4ko Alkatetza-Dekretu bidez, Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak jasotzen zituen proiektua onartu zuen. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa zen zuinketa-akta jaso zen espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera. Behin jardunbide osoa burututa, eskaintzak aurkezteko epean enpresek ez zuten eskaintzarik aurkeztu eta ondorioz, 2018ko urriaren 29an, Alkatetza-Dekretu bidez, **huts deklaratu zen aipatutako lizitazioa.**

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz eta obren beharra ikusirik, 2018ko azaroaren 28an Hirigintza Departamentuko buruak egindako txostenarekin berriro martxan jarri zen obraren lizitazioa. Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 17an onartu zuen proiektua, aldaketak barne, eta lizitazio-jardunbidea martxan jartzea.

Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jasotzen da espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

- 1. Fasea. Sarbidea bidetik.
- 2. Fasea. Eraikina eta plazarekin lotura.
- 3. Fasea. Eskailera eta hegalaren eraisketa eta berreraiketa.

Beraz, onarturiko proiektua aztertu ondoren, eta SPKLren 231. eta 232. artikuluetan xedaturikoa kontuan hartuz, Tolosako Olarrain auzo-elkartearen irisgarritasuna bermatzeko obrak, **erreforma lanak** direla ondoriozta daiteke.

Hirugarrena.- 2018ko abenduaren 11n egindako txosten tekniko bidez hasiera eman zitzaion Tolosako Olarrain auzo elkarteko eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko obra kontratatze jardunbideari.

Laugarrena.- Espedientea eta klausula administratibo partikularren zein baldintza teknikoen pleguak 2018ko abenduaren 17an onartu zituen Tokiko Gobernu Batzarrak. Lizitazio-deialdia abenduaren 21ean argitaratu zen, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Kontratatzaileren Profilean.

Klausula administratiboaren pleguan xedatutakoarekin bat etorrita, CPV: 45200000-9 kodeekin tipifikatuta dagoen kontratu honek honako aurrekari hauek ditu:



TOLOSAKO
UDALA

- prozedura: irekia sinplifikatua
- tramitazioa: arrunta
- loteak:ez

Bosgarrena.- Behin eskaintzak aurkezteko epea amaituta, ondorengo enpresek aurkeztu zituzten proposamenak:

- URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L.(B-20868071)
- CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L. (B-20619722)
- CONSTRUCCIONES ECHAIDE,S.A. (A-75048397)
- HONDALANAK ETA ERAIKUNTZAK HARRI 2017,S.L. (B-75171520)
- ETXE-AIZ, S.L. (B-20643516)

Seigarrena.- 2019ko urtarrilaren 14an, Kontratazio-Mahaiak erantzukizunpeko adierazpena eta zifren edo ehunekoen bidez balora daitezkeen irizpideen eskaintza jasotzen zituen gutun-azal "bakarra" ireki zuen. Aipatutako enpresek BAPParekin bat etorri aurkeztu zuten dokumentazioa, ETXE-AIZ, S.L. enpresak izan ezik. Honek I. eranskineko 18. klausulan jarritakoa betetzearren, "*Proposamenak posta bidez bidaliz gero, enpresa lizitatzailerak posta-bulegotik zein egunetan bidali duen justifikatu beharko du*" ziurtagiriarekin batera gutun-azala ireki bitartean sekretua izan behar zuen dokumentazioa bidali zuen, eta, ondorioz, Kontratazio-Mahaiak erabaki zuen lizitaziotik at lagatzea.

CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.A eta HONDALANAK ETA ERAIKUNTZAK HARRI 2017, S.L. enpresek ez zuten lan-programarik aurkeztu, eta hori betetzea derrigorrezkoa zenez, Kontratazio-Mahaiak enpresa horiek lizitaziotik kanpo uztea erabaki zuen.

Bestalde, URKAZ ERAIKUNTZAK, S.L. enpresak lanak egiteko egikaritze-denbora 35 egunekoa izango zela aurkeztu zuen eta BAPPean aipatzen da gehienez hilabeteko epean egin behar duela. Epe hori betetzea derrigorrezkoa denez eta gehieneko epea betetzen ez zuenez, Kontratazio-Mahaiak lizitaziotik at uztea erabaki zuen enpresa.

Azkenik, CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L. enpresak ez zuen aurkeztu kaudimen teknikoa egiaztatzen duen dokumentua, eta, hori aintzat harturik, enpresari errekeritu zitzaion dokumentazioa zuzen aurkez zezan, luza ezin zitekeen 3 eguneko epean, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Zazpigarrena.- 2019ko urtarrilaren 21ean, Kontratazio-Mahaiak aho batez onartu zuen kontratazio-teknikariak urtarrilaren 16an egindako txostena, non ziurtatzen zuen aipatutako epearen barruan akatsak zuzendu zituela CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L. enpresak, errekeritu zitzaion bezala.

Zortzigarrena.- Aurrekoa ikusirik, Kontratazio-Organuari erreferentziako kontratua CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L. (B-20619722) enpresari esleitzea proposatu zitzaion, zenbateko honekin: nagusia, berrogeita hamalau mila zazpiehun eta hirurogeita



TOLOSAKO
UDALA

bi euro eta laurogeita bat zentimo (54.762,81 €) eta BEZa, hamaika mila bostehun euro eta hemeretzi zentimo (11.500,19 €); guztira hirurogeita sei mila berrehun eta hirurogeita hiru zentimo (66.263,00€). Halaber, SPKLren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera, beharrezko dokumentazioa aurkeztu zezan errekeritu zion.

Bederatzigarrena.- Behin errekeritutako dokumentazioa jaso eta aztertu ondoren, kontratazio-teknikariak 2019ko otsailaren 4an egindako txostenean esaten zuen dokumentazioa egokia zela eta kontratua aipatutako enpresari esleitzea proposatzen zuen.

Hamargarrena.- 2019ko otsailaren 6an, Kontratazio-Mahaia bildu eta aipatutako txostena aho batez onartuta, Kontratazio-Organoari proposatu zion erreferentziako kontratua CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L. (B-20619722) enpresari esleitzea.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Baliozkotzat jotzea Tolosako Olarrain auzo elkarteko eraikinaren irisgarritasuna bermatzeko obra kontratuaren lizitazio-egintza eta erreferentziako kontratua CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L. (B-20619722) enpresari esleitzea honako ezaugarri nagusi hauekin:

- Prezioa: Nagusia: berrogeita hamalau mila zazpiehun eta hirurogeita bi euro eta laurogeita bat zentimo (54.762,81€).
BEZa (% 21): hamaika mila bostehun euro eta hemeretzi zentimo (11.500,19€).
Guztira: hirurogeita sei mila berrehun eta hirurogeita hiru zentimo (66.263,00€).

- Epea: Hilabete bat, zuinetaren egiaztapen akta sinatzen denetik.

BIGARRENA.- Esleipena enpresa lizitazaille guztiei jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Ebazpena Euskadiko Kontratazailearen Profilean argitaratzea.

LAUGARRENA.- Kontratua formalizatzea, 15 laneguneko gehieneko epean, adjudikazioa hau jakinarazi den egunetik hasita.

BOSGARRENA.- Erabakia jakinaraztea Hirigintza Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Kontratazio Atalari.



7. ONARTZEA HAUTESPEN-IRIZPIDEAK, UDAL HONETAKO PLANTILAN HUTSIK DAGOEN ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUA BITARTEKO IZAERAZ HORNITZEKO, ETA JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA.

AURREKARIAK

I.- Tolosako udalbatza Plenoak, 2018ko abenduaren 10ean egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, ondoko erabakiak hartu zituen:

“....BIGARRENA.- Tolosako udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko 2018-2020 Bitarteko Programaren 1. Fasea (Enplegu Plana) behin betikoz onartzea.

HIRUGARRENA.- 2018ko Lanpostuen Zerrenda eta Programan xedaturiko lanpostuen funtzio eta zereginak onartzea. Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren txostena behar duten Hizkuntza Eskakizunen kasuan (HPS oharra dutenak), behin behinekoak izango dira, eta udalbatza plenoak behin betiko izaeraz onartuko ditu aipatu txostena jaso ondoren.

LAUGARRENA.- Dokumentuaren eranskinetan jasotzen diren Lan Eskaintza Publikoen eta plaza zein lanpostuak hornitzeko jardunbideen izaera orientagarria onartzea, haien onespena organo eskudunak ebatzi behar duelako. Kasu guztietan, 2019 eta 2020 urteetako Lan Eskaintza Publikoak eta plazak betetzeko hautaketa jardunbideak ebatzi aurretik, Udal Departamentuekin kontsultak burutuko ditu organo eskudunak. Halaber, Lan Eskaintza Publikoek errespetatu beharko dute unean uneko araudia, sektore publikoko aurrekontuei buruzkoa.....”

II.- Onarturiko Enplegu Planaren neurrietako bat izan da Hirigintza Departamentuarekin atxikiturik zegoen Letradu Lanpostua amortizatzea, eta horren ordeztu Administrazio Orokorreko Teknikariaren lanpostua sortzea. Halaber, beste Administrazio Orokorreko Teknikariaren Lanpostua sortu da, Partaidetza, Gardentasuna, eta Datuen Babeserako Delegazioarekin loturik zeuden zereginak bete ditzan.

Birmoldaketa hauen ondorioz, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, Hirigintza Departamentuko Letraduko funtzioak betetzen zituen bitarteko funtzionarioa hornitzen ari da, aldi baterako izaeraz, Administrazio Orokorreko Teknikariaren lanpostua sortu den Departamentu berrian, Partaidetza, Gardentasuna, eta Datuen Babeserako Delegazioan hain zuzen.

Horren ondorioz, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, eta Ingurumen Departamentuari atxikituriko Administrazio Orokorreko Teknikariaren lanpostua hutsik dago, eta premiazko izaeraz bete behar da. Izan ere, Departamentu honetan izapidetzen diren espediente askotan ezinbestekoa da txosten juridikoa txertatzea. Horretaz gain, Departamentuan burutzen den lan administratiboaren antolaketa eta zuzendaritza bermatu behar da, eta une honetan hutsune handia dago arlo horretan.



III.- Beraz, eta konklusio gisa, Tolosako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa-Enplegu Planaren neurrietako bat aipatu lanpostua behin betiko izaeraz hornitzea bada ere, une honetan Hirigintza, Obraeta Zerbitzuak, eta Ingurumena Saileko espedienteak izapidetzerako orduan atal juridikoan dagoen lan-kargak, lanpostu hori presaz behin-behineko izaeraz hornitzea eskatzen du, herritarrei behar bezalako kalitatezko zerbitzu publikoa ematea bermatzeko eta bestalde, Sailak izapidetzen dituen jardunbideetako ebazpenak emateko epeak betetzeko.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

ESKUMENA.- Udaleko plantilan hutsik dagoen Administrazio Orokorreko Teknikaria behin behineko izaeraz hautatzeko prozesua arautuko duten oinarriak onartzeko eskumena, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio, Alkate-Udalburuak 2015eko uztailaren 28ko Dekretuan emandako ahalmenez baliatuta (GAO 2015eko abuztuaren 9an, 148. zkian argitaratua) eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 artikulua xedaturikoari jarraiki.

ARAUBIDE JURIDIKOA.- Izendatzea proposatzen den enplegatu motari erreparatuta, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 8. artikulua enplegatu publikoak ondorengoak izan daitezkeela xedatzen du: karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-itunpeko pertsonalak (fijo, behin-betiko edo aldi baterakoek) eta ebentualak.

Administrazio Orokorreko Teknikariak beteko dituen funtzioei erreparatuta eta langileen izaera zehazteko, kontutan hartu behar da, alde batetik, Lege horren 9.2 artikulua, “2. *En todo caso, el ejercicio de las funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales del Estado y de las Administraciones Públicas corresponden exclusivamente a los funcionarios públicos, en los términos que en la Ley de desarrollo de cada Administración Pública se establezca.*” Bestetik, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 19. artikulua, 1. atalean “ *Los puestos de trabajo de la Administraciones Públicas Vascas serán desempeñados, con carácter general, por funcionarios.*”

Beraz, Administrazio Orokorreko Teknikariak beteko dituen zereginak ikusirik eta aurreko paragrafoan adierazitakoa kontutan hartuta, langile horrek **funtzionario izaera izango du.**

Aldi baterako funtzionarioen kasuan, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 10. artikulua arautzen du: “1. *Bitarteko funtzionarioak dira, urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko, hauetako bat gertatzen denean:*



a) Plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete.

b) Titularrak aldi baterako ordezteko denean.

c) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.

d) Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, hamabi hileko tarte batean.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 3. artikulua, Euskal Administrazio Publikoetako pertsonala, karrerako funtzionarioek, bitarteko funtzionarioek, pertsonal ebentualek eta lan itunpeko pertsonalak osatzen dute.

Bitarteko funtzionarioei dagokionean, 6/1989 Legearen 91. eta 92. artikuluek xedatzen dute: **91. artikulua** "1.- Izendapenez eta presako arrazoiengatik, zerrendako lanpostu hutsak karrerako funtzionarioez bete arte edo, horiek ez dauden kasuetan, horien ordezkotza egiteko sar daitezkeenak dira bitarteko funtzionarioak.

2. Bitarteko funtzionario gisa lan egin izanak ez du funtzionario bilakatzeko edo lan-itunpeko langile finko izateko inolako lehentasun-eskubiderik ekarriko.

92. artikulua "1.- Lanpostua karrerako funtzionario batek bete edo ordezkatua berriz laneratu eta, dena dela, izendapenaren zio izan ziren urjentzia edo behar-arrazoiak ezabatzean galduko du bere egoera bitarteko funtzionarioak.

....3.- Funtzionarioen estatutu-erregimena ezarriko zaie bitarteko langileei, hauen lotura-egoerak horretarako bide ematean eta, dena dela, bitarteko langileak betetzen duen lanpostuari izendatutako lansari osagarriak eta horren titulazio-taldeari dagozkion oinarritzkoak jasoko ditu."

Halaber, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Erakundeen kasuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 89. artikulua xedatzen ditu toki erakundeen zerbitzura dagoen pertsonala.

Hautaketa prozesuari dagokionean, kontutan izan behar dira Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen **55. artikulua** xedatzen dituen **printzipioak**. Artikulu horren 2. atalak "Estatutu honetako 2. artikuluan jasotako administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek funtzionarioak eta langile lan-kontratudunak hautatzeko erabiltzen dituzten prozeduretan, ongi bermatu behar dituzte bai arestian adierazitako printzipio konstituzionalak baita ondoren ezarritakoak ere:

a) Deialdien eta haien oinarrien publizitatea.

b) Gardentasuna.

c) Hautaketa-organoetako kideen profesionaltasuna eta inpartzialtasuna.

d) Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.

e) Hautaketa-prozesuetako edukiak bete beharreko eginkizunei edo atazei



egokitutakoak izatea.

f) Hautaketa-prozesuetan bizkortasunez jokatzea, objektibotasunari kalterik egin gabe.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 25. artikulua *"1. Euskal Herri-Administrazioek ageriko deialdiz eta normahirentzako norgehiagoka, lehiaketa edo norgehiagoka-lehiaketa bidez aukeratuko dute euren langilegoa, funtzionarioa zein lan-itunpekoa izan, horietan, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak bermatuko direla."* xedatzen du.

Zentzu berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 91.2 artikulua *"2. La selección de todo el personal, sea funcionario o laboral, debe realizarse de acuerdo con la oferta de empleo público, mediante convocatoria pública y a través del sistema de concurso, oposición o concurso-oposición libre en los que se garantizan, en todo caso, los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad, así como el de publicidad"* xedatzen du.

Bestaldetik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: *2. Bitarteko funtzionarioak hautatzerakoan prozedura bizkorrak erabili behar dira, betiere, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak estu errespetatuta.*

Horretaz gain, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 33. artikulua, 1. atalean *"Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langileak arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-irizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldibaterakotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete behar dituzte.."*

Hori esanda, kontutan harturik Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua behin behineko izaeraz hornitzea presazkoa dela, lanpostua behin betiko izaeraz hornitu arte, aipatu legedia aintzat hartuta posible da bitarteko izaeraz hornitzea.

Beraz, pertsonalaren izaera, hautaketa prozesuetan kontutan hartu beharreko printzipioak eta bitarteko funtzionarioa hautatzeko erabiliko den sistema eta prozedura, izendapen mota eta horren iraupena, funtzio publikoaren arloan eta toki erakundearen araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen arabera egitea proposatzen dela ondorioztatzen du Udal-idazkariak, oinarriak guzti hori kontutan harturik egin direlarik.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO
UDALA

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udaleko plantillan hutsik dagoen Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua aldi baterako izaeraz hautatzeko jardunbideari hasiera ematea, bitarteko funtzionario gisa izendatu ahal izateko, lanpostuak honako ezaugarri nagusiak dituelarik:

- Izaera: Bitarteko Funtzionarioa. Administrazio Orokorreko Eskala, Goi Teknikari Azpieskalakoa, Goi mailako mota.
- Iraupena: Lanpostua behin-betiko izaeraz hornitu arte, edota amortizatu arte.
- Lanpostuaren ezaugarriak: Goi Mailako Teknikaria (A1 taldea), Destino Osagarria 24, Berariazko Osagarria: 19.027,96 €
- Lanaldia: %100a
- Hornitzeko era: oposizio-lehiaketa publikoa.

BIGARRENA.- Aipatu bitarteko funtzionarioaren hautaketa arautuko duten oinarriak onartzea (dokumentu honi eranstean zaizkio).

HIRUGARRENA.- Deialdiaren eta oinarrien argitalpena egitea ondoko eran:

- Tolosako Udalaren web orrian, "lan eskaintza" atalean.
- Udaletxeko Iragarki Taulan
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean
- Eskualdeko prentsan

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri Kontuhartzaitzari eta langileen ordezkariari ematea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari.

ERREKURTSOAK

Erabakiaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik zenbatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik zenbatuta; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, adierazitako epaitegian, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.



TOLOSAKO
UDALA

**8. ONARTZEA KONTRATAZIO-JARDUNBIDEA, TOLOSAKO UDALERRIAN
POLTSA KONPOSTAGARRIAK EROSTEKO HORNIDURA KONTRATUA
ESLEITZEKO, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

Gaia mahai gainean geratu da.

9. 83/2018 ETA 1/2019 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **83/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **68.698,46 €** da.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **83 /2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **1/2019** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **3.004,64 €** da.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



TOLOSAKO
UDALA

LEHENA.- 1/2019 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 9:30ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



TOLOSAKO
UDALA

ERANSKINA

TOLOSAKO UDALEKO PLANTILAN HUTSIK DAGOEN ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUA BITARTEKO IZAERAZ HORNITZEKO HAUTAKETA JARDUNBIDEA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea hau da: lehiaketa-oposizio sistema bidez Udal honetako funtzionarioen plantillan hutsik dagoen Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostu bat aldi baterako izaeraz hornitzea. Lanpostu hori, Administrazio Orokorreko Eskalan, Azpieskala Teknikoan, Goi-mailako Teknikarien klasean, A1 Sailkapen Taldean kokatuta dago.

Lanpostuaren izaera eta uneko behar bereziak kontuan izanik zehaztuko du Udalak urtean-urteko lan-jardunaldia.

Hautaketa prozesua gainditu eta izendatu gabe geratzen diren izangaiek lan poltsa bat osatuko dute, lortutako puntuazio-ordenaren arabera. Lan poltsa hori Tolosako Udalean langile ez-iraunkorarren beharra sortzen denean erabili ahal izango da.

2.- Lanpostuaren ezaugarriak.

Lanpostu kopurua: 1.

Izena: Administrazio Orokorreko Teknikaria, bitarteko funtzionarioa.

Atxikiko zaion lanpostua: Administrazio Orokoretako Teknikaria .

Saila: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, eta Ingurumena

Taldea: A1

Destino-osagarria: 24

Berariazko osagarria: 19.027,96 €

Lanaldi erregimena: %100a.

Hizkuntza-eskakizuna: 4. derrigorrezkoa.

Derrigortasun-data: 2018-12-31

Jardunbidea: Oposizio-Lehiaketa irekia



TOLOSAKO
UDALA

Lanpostu honek 4. HE du ezarria, derrigorrezkoa. Edozelan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz (EHAA 72. zkia, 1997ko apirilaren 17koa), hornitu beharreko lanpostuari derrigortasun-data gainditua duen 4. hizkuntza eskakizuna badagokio, eta izangaietako batek ere ez badu egiaztatzen hori, lanpostu horri 3. hizkuntza eskakizuna esleituko zaio, soil-soilik deialdi hori egitearen ondorioetarako. Horrela bada, 3. hizkuntza eskakizunari dagokion euskararen jakite-maila egiaztatzeko probak egin beharko dira.

3.- Lanpostuaren funtzioak.

Orohar, Tolosako udaleko eta, beharko balitz, udal kapitalez osaturiko sozietateetako Hirigintza, Zerbitzuak, Ingurumena eta Ondare erantzukizunaren arloetan ondorengo funtzioak beteko ditu:

- Aholkularitza juridikoa
- Espedienteen izapidetzearen zuzendaritza
- Pertsonal administratiboaren ardura

Zeregin nagusiak

- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, eta Ingurumeneko Departamentuan lantzen diren gaien inguruko lege-aholkuak eman Korporazioari eta Udaleko kideei, eta laguntza eman beharrezko gaitan.

- Saileko Arduradunarekin lankidetzan aritzea, Departamentuko programazioa, proposamenak eta ekimenak gauzatzeko.

- Behar diren txosten juridikoak egin eta beste teknikariek egiten dituztenak gainbegiratu, akordioak onartzeko eta espedienteak bideratzeko (besteak beste, hirigintzako plangintza, kudeaketa eta diziplinako espedienteak, jarduera sailkatuak, udalak sustaturiko obrak eta zerbitzuak, kontratazioak, desjabetzeak, etab.)

-Ordenantza, araudi, hitzarmen edo esleitutako arloetan egindako beste edozein arautegiren inguruan behar diren txosten juridikoak gainbegiratu eta egin, eta horiek aplikatzearen edo bete ez izanaren ondorioz sortutako gaitan esku hartu, eta dagokionean, zehazpen-espedientea sustatu.

-Esleitutako eskumen eremuari lotutako diziplinazko espedienteetan izapidegile bezala jardun, eta horiek ebazteko proposamena egin.

-Herri-lanen proiektuak informatu, udal-plangintzako hainbat dokumentu aurkezten eta abarretan parte hartu, beste udaleko edo kanpoko teknikariek elkarlanean, horrela erabakiko balitz.



TOLOSAKO
UDALA

- Udal-teknikariei aholkularitza eta informazioa eman herri-lanak gauzatzekoan atera daitezkeen gai juridikoen inguruan.

- Hirigintza arrazoiengatik ondasunak erostearen eta besterentzearen inguruko txostenei buruzko informazioa eman, baita lurzoruaren udal-ondarearen kudeaketaren inguruko informazioa ere, jabetza-erregistroan erregistratu arte behar diren izapideak eginez.

-Departamentuko lan administratiboa zuzendu eta koordinatu, eta administrarien lana antolatzeko beharrezkoak diren irizpideak finkatu, beti ere Departamentuko Arduradunaren oneritziarekin.

- Departamentu osoan izapidetzen diren espedienteen kudeaketari buruzko irizpideak finkatzea eta betetzen direla ziurtatzea.

- Departamentuan burutzen diren lanak direla eta, haiei eragiten dizkien legeak (Gardentasuna, Datuen Babesa, Sektore Publikoko Kontratuak, Berdintasuna, Euskara...) betetzen direla egiaztatzea, alegia, kontratuen urteko plangintza, kontratazioko irizpideak, gardentasuna eta herritarren informazioari buruzko betebeharrak, izaera pertsonaleko datuak babesteko neurriak, etab., Udal Idazkariaren zuzendaritzapean.

-Bere eskumeneko arloarekin lotutako lege eta araudi mailako xedapenak aztertu eta ezagutu zehatz-mehatz eta egunean-egunean, eta horiek arduradun politikoei, teknikariei eta interesa duten pertsonen, orokorrean, jakinarazteko ardura hartu.

- Informazio-batzordeetara, eta Udaletxeko eta Erakunde Autonomoetako batzarretara joan bere jarduera-eremuko gaiak aztertzeke, jakinarazteke edo aholkatzeke, horren bidez txostenen alderdi juridikoa zuzentzen laguntzeke, eta Batzorde horretako Idazkaritza lanak egiteke, idazkariak horrela eskatzen dionean.

- Bere eskumeneko arloekin lotutako prozedura judizialeko jarraipena egitea.

- Lehendakariak eta Korporazioko kideek dituzten bileretara lagundu, horrela eskatzen diotenean.

-Hiritarrei arreta, informazioa eta aholkularitza eman, bere eskumeneko gaien inguruan.

-Lankideei aholkularitza eta laguntza eman, daukan ezagutza edota esperientziagatik profesionalki hobeto menperatzen dituen arloetan.

-Deskribatutako atazez gain, helburuak lortzeko eskatzen eta legez dagozkion beste batzuk ere burutu, dagozkion ahalmenen eta gaitasunen arabera.



4.- Izangaien baldintzak.

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

a) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako Europar batasuneko kide diren estatuetak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea. Parte hartu ahal izango du, baita, Europar Batasuneko kide diren beste estatuetak herritarren ezkontideak ere, beti ere zuzenbidez banatuak ez badaude;halaber, bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbidez banatuak ez badaude eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte bain gutxiagokoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere kontura bizi direnak. Hori guztia guztia Enplegatut Publikoen Oinarrizko Estatutu arautzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 57. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean hamasei (16) urte beteta izatea eta derrigorrezko jubilaziorako adina ez gainditzea.

c) Lizentziatu titulua izatea, edo bestela, horiek lortzeko eskubideak ordainduta izatea, honako lizentziatura batean: Zuzenbidea, Zientzia Politikoak, Ekonomikoak edo Enpresaritzakoak, Intendentzia Komertziala edo Aktuarioa edota indarrean dagoen legediak aitorturiko antzekoa. Atzerriko titulazioei dagokienez, horien homologazioa egiaztatzen duen agiria eduki behar da.

d) Lanpostuak derrigorrean ezarrita duen euskarazko 4. Hizkuntza Eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiri batzuk (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 219. zenbakia, 2010eko azaroaren 15^a).

e) Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea. Baldintza hori dagokionean egiaztatu beharko da mediku azterketaren bidez.

f) Diziplina-espediente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ezgaitasuna erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereiziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.



TOLOSAKO
UDALA

g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun legekausaren batean sartuta ez egotea.

Oinarri honetan aipatutako baldintza guztiak behar behar dira eskabideak aurkezteko epearen bukaeran, eta egoera horri eutsi egin beharko zaio lanpostuaz jabetu arte, bitarteko funtzionario izendatu ondoren.

5.- Eskabideak aurkeztea

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak Udalak prestatutako eredu ofizial eta normalizatuari egokituko zaizkio. Oinarri hauekin batera II. Eranskin gisa doa.

Era berean, eskabideak honako toki hauetan ere eskuratu daitezke:

- Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko Enparantza, z.g.) astelehenetik ostiralera 7:15etatik 14:15etara.
- Tolosako Udalaren Web-gunean (www.tolosa.eus).

Lehiaketa-oposizio honetan onartua izateko eskabideak, Tolosako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio eta eskabide horiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:

- a) Izangaiek adierazi beharko dute oinarri hauen laugarren atalean zehazturiko baldintza guztiak betetzen dituztela. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako bete beharko dituzte.
- b) Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:
 - a) Nortasun Agiriaren kopia edo Europako Batasuneko beste Estatuetakoko partaideen kasuan, nortasuna edo nazionalitatea egiaztatuko duen agiria.
 - b) Deialdian parte hartu ahal izateko eskatutako tituluaren kopia konpultsatua.
 - c) Eskatutako hizkuntza eskakizuna duenak, hori egiaztatzeko dokumentuaren kopia aurkeztu beharko du eskabidearekin batera.
 - d) Lehiaketa fasean baloratu nahi diren merezimenduei dagozkien datuak ere aurkeztu beharko dituzte. Ez dira baloratuko eskabidean egoki zehaztu edo zerrendatu ez diren merezimenduak.



TOLOSAKO
UDALA

Merezimenduak egiaztatzeko garaian honakoak hartu beharko dira kontuan:

1. Herri Administrazioetan betetako zerbitzuak organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, lan egindako denbora, lanaldi erregimena (jardunaldia), betetako lanpostua eta eginkizunak zehaztuko dira.

2. Tolosako Udalean egindako zerbitzuak eta bertan jasotako lanbide esperientzia, beti ere eskabidean alegatu izan badira, ez dira dokumentu bidez kreditatu behar izango eta izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuetan oinarrituz baloratuko dira.

3. Enpresa pribatuetan emandako zerbitzuak organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, lan egindako denbora, lanaldi erregimena (jardunaldia), betetako lanpostua eta eginkizunak zehaztuko dira. Halaber, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak egiaztatzen dituen ziurtagiria aurkeztu beharko da.

4. Prestakuntza osagarria egiaztatzeko ikastaroa antolatu duen erakunde ofizialak emandako ziurtagiria edo lortutako titulua aurkeztu beharko da. Hauetan ikastaroa antolatu duen erakundearen izena, ikastaroaren izena, eta ikastaroaren iraupen orduak agertu beharko dira derrigorrez eta posible izanez gero irakaskuntza programa baita ere. Epaimahaiak ez ditu kontutan hartuko Oinarri hauetan eskaturiko informazioa betetzen ez duten ziurtagiriak.

Fotokopien kasuan, horiek konpulsatuak aurkeztu beharko dira.

Eskabideak, behar bezala bete ondoren, Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean (Herriko enparantza z/g, 20400 Tolosa), aurkeztuko dira deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta **hamabost (15) egun naturaleko epean**.

Halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duenak, bere 16. artikuluan aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

Tolosako udalaren aurrean eskura aurkezten diren dokumentuak administrazio-espediente elektronikoari gehitzeko digitalizatu egin beharko ditu erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak. Ondoren, jatorrizko dokumentuak interesdunari itzuliko zaizkio.



TOLOSAKO
UDALA

6.- Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta Alkatetzaren Dekretu bidez onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko da eta baztertzeko arrazoiak azalduko dira bertan. Zerrenda hori Udaleko web orrian argitaratuko da eta 10 laneguneko epea egongo da erreklamazioak edo akatsak konpontzeko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duenaren, 68. artikulua dioen bezala.

Halaber, ebazpen horretan adieraziko dira epaimahaiko kide titularren eta ordezkoen izendapena eta oposizioko frogak egiteko lekua, eguna eta ordua.

Erreklamaziorik egon ezean behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da. Erreklamaziorik egongo balitz onetsiak edo gaitzetsiak izango dira behin-betiko zerrenda onartzen duen beste ebazpen baten bidez eta hori lehen adierazitako era berean argitaratuko da.

Behin-behineko zerrendetan baztertuak izanik zerrenda horien aurkako erreklamazioak epearen barruan aurkeztu dituzten izangaiek probak egin ahal izango dituzte, kautela gisa, baldin eta jarritako erreklamazioa egun horretarako erabaki ez bada. Era berean, behin betiko zerrendetan baztertuak izan diren izangaiek ere probak egin ahal izango dituzte, kautela gisa, baldin eta baztertzearen aurka errekurtsua jarri izana egiaztatzen badute eta probaren egunerako ez bada erabaki errekurtsua.

7.- Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuko da:

Lehendakaria:

— Udaleko Idazkaria edo bere ordezko funtzionarioa.

Epaimahaikideak:

— Beste Udal bateko Idazkari bat edo Administrazio Orokorreko Teknikari bat edo beren ordezkoak.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako saileko goi mailako teknikari bat.

- Giza Baliabideetako Departamentuko arduraduna edo bere ordezko funtzionarioa.

Honek Epaimahaiko Idazkariaren lanak beteko ditu.



TOLOSAKO
UDALA

Egoki irizten den probetan, Epaimahaiak dagokion gaian adituak diren aholku-emaileen laguntza eskatu ahal izango du; aholkulari aditu horiek hitza bi baina botoa emateko eskubiderik ez dute izango. Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan soilik lagundu ahal izango dute.

Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoez jasotzen dituen xedapenetara egokitu beharko du epaimahaiak bere jarduera.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezigo du jardun kideen erdiak baino gehiago etorri ez badira; nolana ere, Lehendakariak eta Idazkariak bertan egon beharko dute beti. Erabakiak hartzeko, botoen gehiengoa beharko da, eta berdinketarik bada, Lehendakariaren botoak erabakiko du.

Epaimahaikideek parte hartzeari uko egin nahi badiote, Alkatetza-Lehendakaritzari jakinarazi beharko diote eta izangaiek epaimahaikideak arbuiatu ditzakete, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen Legearen 23 eta 24 artikuluei jarraiki.

Epaimahaiak, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipio gidariek bideratuta, erabateko independentziaz, diskrezio teknikoaz eta objektibotasunez jardungo du, eta haren proposamenek organo eskuduna lotuko dute, izendatzeko unean.

Epaimahaiak arau hauek aplikatzeko sor daitezkeen zalantzak argituko ditu, eta aurreikusita ez dauden kasuetan zer egin behar den erabakiko du.

Epaimahaiak dagozkion neurriak hartuko ditu ariketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, baita ariketak zuzentzeko ere, ahal den guztietan, eta saiatuko da inork ez jakiten parten hartzen duten pertsonen izenak.

8.- Hautaketa prozesua.

Lehenengo ariketa egiteko deialdia Tolosako Udaleko Iragarki Taulan eta web orrian argitaratuko da onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera, eta bertan azterketa eguna, ordua eta tokia zehaztuko dira. Gainontzeko ariketen deialdiak Tolosako Udaleko iragarki taulan eta web orrian iragarriko ditu Epaimahaiak.

Deialdi bakarra egingo da. Izangaiek NANA eraman beharko dute probetara, identifika ditzaten. Epaimahaiaren iritziz ezinbestekoak diren arrazoiak gertatu direnean izan ezik, ezarritako egun eta orduan ariketak eta probak egitera azaldu ez diren izangaiek hautaketa prozesutik baztertu egingo dira eta deialdi honetan izan zitzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.



TOLOSAKO
UDALA

Epaimahai kalifikatzaileak ariketak egiteko denbora eta bitartekoak egokitu egingo dizkie nolabaiteko egokitzapena behar duten eta eskabidean hala adierazi duten desgaituei, gainerako parte-hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten, baldin eta egokitzapen horrek probaren edukia aldatzen ez badu eta eskatutako gaitasun-mila murriztu edo kaltetzen ez badu.

8.1 Oposizioaldia

Oposizio-aldiak bi (2) ariketa izango ditu, guztiak derrigorrezkoak eta baztertzailerak.

Oposizioko ariketen hurrenkera ondorengoa izango da; hala ere, epaimahaiak ahalmena du hurrenkera hori aldatzeko, hautaketa prozesuaren garapen egokia lortzeko.

— **Lehenengo ariketa:** Teoriko. Izangai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzailerak.

Idatziz erantzun beharko da test motako galdetegi bati, txandakako erantzunez, eta horietako bat bakarrik izango da zuzena. Deialdi honetako eranskinetako **gaitegi orokorrean eta espezifikotan** datozen gaiei buruzkoak izango dira egingo diren galderak.

20 puntu lortu ahal izango dira gehienez, eta 10 puntu atera beharko dira, gutxienez, gainditzeko.

Epaimahaiak erabakiko du erantzun okerrak zigortu edo ez; ariketaren hasieran emango da horren berri.

— **Bigarren ariketa.** Teoriko-Praktikoa. Izangai guztientzat nahitaezkoa eta baztertzailerak.

Epaimahaiak formulatzen dituen galderak eta jartzen dituen kasu praktikoak ebatzi beharko dituzte izangaiek; deialdiko eranskinetako gaitegi espezifikolari eta lanpostuaren funtzioei buruzkoak izango dira.

Ondoren, eta hautagaien kopurua handia izango balitz, beste egun batean, hautagaiek epaimahaiaren aurrean irakurri eta defendatu beharko dituzte egindako ariketak. Epaimahaikideek izangaiarekin hitz egiteko aukera izango dute eta proposatu dituen legezko irtenbideak aztertuko dituzte. Halaber, egindako ariketarekin lotuta ez dauden kasu edo galderak egin ahal izango dizkiote, kasu guztietan, oposizioaldian parte hartzen ari diren izangaien artean berdintasun printzipioa bermatuz.



TOLOSAKO
UDALA

Ariketa hau gehienez 40 punturekin baloratuko da. Hain zuzen, idatzizko zatia gehienez 30 punturekin baloratuko da, eta epaimahaiaren aurreko defentsa, 10 punturekin. Ariketa hau gainditu ahal izateko, gutxienez 15 puntu atera beharko dira lehenengo zatian, eta 5 puntu bigarrenengan.

Ariketa honetan froga praktikoa (idatzia) egiteko, izangaiek legezko testuak erabili ahal izango dituzte (paperean bakarrik), baina kasu batean ere ezingo dute erabili lehendik aipatutako legegintza, jurisprudentzia edo doktrinako erreperetoriorik, bai paperean zein euskarri elektronikotan.

Ariketa hau edota gaia idatziz garatzea eskatzen duen beste edozein kalifikatzeko, kontuan hartuko dira: erantzunaren zehaztasuna, sintesi eta analisi gaitasuna, garatutako ideien aberastasuna eta emandako azalpenen argitasuna eta zuzentasuna.

Ahozko frogari dagokionez, honako hauek baloratuko dira: komunikazio-gaitasuna, ideiak azaldu eta defendatzeko trebetasuna, baliabide dialektikoak, lanpostuaren zereginei buruzko gaiak lotu eta menderatzeko gaitasuna, etab.

Ahozko ariketak grabatu egingo dira, erreklamaziorik egonez gero hautagaiekin bateraerkatzeko.

— **Hizkuntza eskakizuna:** Lanpostua betetzeko, izangaiek frogatu beharko dute 4. Hizkuntza Eskakizunaren, edo baliokidea den bestelakoaren tituluaren jabe direla.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik (EHAA 72. zkia, 1997ko apirilaren 17koa), hornitu beharreko lanpostuari derrigorrezkotasun-data gainditua duen 4. hizkuntza eskakizuna badagokio, eta izangaietako batek ere ez badu egiaztatzen hori, lanpostu horri 3. hizkuntza eskakizuna esleituko zaio, soil-soilik deialdi hori egitearen ondorioetarako. Horrela bada, 3. hizkuntza eskakizunari dagokion euskararen jakite-maila egiaztatzeko probak egin beharko dira. Euskararen jakite-probei ekin aurretik, kasuan-lasuko hizkuntza eskakizuna betetzen dutela egiaztatzen duen ziurtagiria Epaimahaiari aurkezten dioten izangaiek ez dute euskarako azterketarik egin beharko.

Hizkuntza eskakizunaren jabe izatea egiaztatzeko, agiri hauek aurkeztu ahal izango dira:

4. eta bere kasuan, 3. hizkuntza eskakizunerako:



TOLOSAKO
UDALA

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) emandako hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanaren ziurtagiria.

- Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko mailekin parekatzeko den azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera, baliokideak diren beste ziurtagiri batzuk (EHAA, 219. zkia, 2010eko azaroaren 15a)

8.2 Lehiakeltaldia

Oposizioaldiko probak gainditu ondoren, merituak baloratuko dira, baldin eta eskaeran alegatu izan badira eta behar bezala egiaztatu, bosgarren oinarriak xedatutakoaren arabera.

Fase honetan baloratuko dira izangaiek eskaerak aurkezteko epearen barruan alegatutako eta behar bezala egiaztatutako merituak, oinarri hauen arabera. Era honetan, bakar-bakarrik baloratuko dira instantziak aurkezteko epea amaitu arte aurkezturikoak.

— Lan esperientzia, 10 punturaino gehienez

a) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, Administrazio Orokorreko Teknikariaren funtzioekin bat datozenak, hileko gehienez 0,10 punturekin, 5 puntu osatu arte.

b) Administrazio publikoan emandako zerbitzuak, Hirigintza, Ingurumena eta Zerbitzuetako Goi Mailako Teknikari funtzioekin bat datozenak, 0,05 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontutan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 2,5 puntu osatu arte.

c) Enpresa pribatuan emandako zerbitzuak, hornitu nahi den lanpostuaren antzeko zereginetan: 0,05 puntu lan eginiko hilabete bakoitzeko (ez dira kontutan hartuko frakzio txikiagoak), gehienez 2,5 puntu osatu arte.

Kasu guztietan, Lanaldi osoa ez den kasuan puntuazioa hainbanatu egingo da. Hilabete bat baino gutxiagoko epeen kasuan ere, puntuazioa hainbanatu egingo da.

Esperientzia profesionala dagokion Administrazio Publikoak edota enpresako zuzendaritzak emandako agirien bidez frogatu behar da, honako zehaztapen hauekin: betetako lanpostuaren eginkizunak, dedikazioa, iraupena eta eginkizun horiek burutzeko epealdiak. Epaimahaiak bidezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu.



TOLOSAKO
UDALA

— Formazioa, gehienez ere 10 puntu.

Prestakuntza osagarria deialdiko lanpostuarekin zerikusia duena, Administrazio Publikoek antolatuta edo homologatuta; gehienez 5 punturekin baloratuko da, honako baremo honen arabera:

- 50 eta 100 ordu bitarteko ikastaroak: 1,50 puntu ikastaroko.
- 101 eta 200 ordu bitarteko ikastaroak: 2,5 puntu ikastaroko.
- 200 ordutik gorako ikastaroak: 5 puntu ikastaroko.
- EVETUK (LHIEEK) emandako Hirigintza eta Lurralde Ikasketei buruzko ikastaro osoa (700 ordu), edota horren baliokidea, irakasgai berdinekin: 10 puntu

9.- Deialdiak eta jakinarazpenak

Hautaketa-prozesuko probak egiteko deialdiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko jakinarazpen eta komunikazio guztiak ere, Tolosako Udalaren web orrian argitaratuz emango dira jakitera.

10.- Proben emaitzak argitaratzea eta berrikustea.

Ariketa bakoitzaren emaitzak plazaratu ondoren, azterketak edo merezimenduen balorazio emaitzak berrikusteko gutxienez hiru (3) egun balioduneko epea emango da, eta erreklamazioak egiteko, berriz, azterketaren edo merezimenduen balorazio emaitzen berrikuspenaren egunetik hasita bi (2) egun baliodunekoa. Erreklamazioak idatziz egin behar dira eta Epaimahaiko Lehendakariari zuzendu behar zaizkio. Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira.

11.- Ariketak eta merezimenduak baloratzea eta Epaimahaiaren proposamena

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa oposizio eta lehiaketa faseetan lortutako puntuak batuz aterako da.

Oposizio eta lehiaketa faseetako puntuazioa batu eta berdinketa gertatuz gero, lehenetasun ordena honako irizpide hauei hurrenez hurren jarraituz egingo da:

- a) Oposizio fasean puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde.
- b) Oposizio faseko probako bigarren atalean puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde.



TOLOSAKO
UDALA

c) Oposizio faseko probako lehen atalean puntu gehien lortu dituen izangaiaren alde.

Ariketa eta merezimenduen kalifikazioa bukatu ondoren, Epaimahaiak Udaleko web orrian argitaratuko ditu lehiaketa-oposizioa gainditu duten izangaien izenak, eta puntu gehien lortu duena izendatzeko proposamena egingo du.

Epaimahaiak Alkate-Lehendakariari igorriko dio akta, honek dagokion izendapen-proposamena egin dezan. Akta horretan, ariketa bazterzaileak gainditu dituzten izangai guztiak, lanpostu kopurutik kanpo geratu direnak, azaldu beharko dute puntuazioaren arabera sailkaturik.

Epaimahaiak, deitutako lanpostua egoki betetzeko izangaiek egindako ariketen maila nahikoa ez dela iritziz gero, lanpostu hori bete gabe gelditzen dela erabaki dezake.

12.- Dokumentuak aurkeztea

Proposatutako izangaiak, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik 20 lan eguneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozeduran parte hartzeko laugarren Oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.

Epe honetan, Udalak zehazturiko medikuntza zerbitzuak mediku-errekonozimendua egingo dio izangaiari.

Oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak agirian bidez egiaztatu eta gero, proposatutako hautagaia praktiketako funtzionario izendatuko da.

Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko arrazoiak salbu, proposatutako izangaiak ez badu aurkezten agiririk edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezin izendatuko da, berak egindako guztia baliorik gabe geratuko da eta izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, nolahi ere faltsukeriagatik izan lezakeen erantzunkizunari aurre egin beharko dio.

Kasu horretan, haren orde hurrengo izangaia hartuko da, behin betiko sailkapeneko lehen ordena jarraituko zaio eta eskatutako eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu beharko da.



TOLOSAKO
UDALA

13.- Prestakuntza ikastaroak eta praktikaldia.

Tolosako alkateak praktiketako funtzionario izendatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaia, 12. oinarrian aipatu diren agiriak aurkeztu dituenean.

Prestakuntza eta praktikaaldiak lau (4) hilabeteko iraupena izango du eta baztertzailea izango da.

Prestakuntza eta praktika aldia amaitutakoan eta izangaia bere lanpostura egokitzeari buruz izendaturiko batzordeak aldeko txosten teknikoa egin ondoren, bitarteko funtzionario izendatuko da.

Ebaluazio batzordeak, egokitzat jotzen duen laguntza teknikoarekin, praktikak egin behar dituen izangaiak bete behar dituen helburuak finkatuko ditu. Aipatu helburuak honako ezaugarriak egiaztatzeko jarriko dira:

- Lanpostuaren eginbeharrak burutzeko eta sortzen diren arazoei irtenbidea emateko gaitasuna.
- Lana modu arrazionalen eta eraginkorren prestatu eta antolatzeko gaitasuna.
- Pertsona arteko harremanak ezartzeko gaitasuna eta informazioa trukatzeko trebezia.
- Ekarpen profesionalerako ekimena eta gaitasuna.
- Lanerako gaitasuna eta bere giza gaitasunak eta gaitasun profesionalak hobetzeko interesa.

Praktika aldiaren amaieran, ebaluazio batzordeak txosten idatzia landuko du. Txostena aurkakoa bada, haren berri emango zaio praktikatako funtzionarioari, hark helburuak ez betetzeko arrazoiak azal ditzan eta egokitzat jotzen dituen alegazio eta oharrak aurkeztu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordeak ondoko hauek osatuko dute:

- Udal Idazkariak
- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuko Arduradunak.
- Giza Baliabideetako Departamentuko Arduradunak.

Ebaluazio Batzordeak Alkatetzari helaraziko dio bere proposamena.

Izangaiak 20 egun izango ditu, izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, bitarteko funtzionario gisa izendatua izateko. Hala egiten ez badu, ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik, ondoriorik gabe geratuko dira jarduera guztia, eta funtzionario izateko legozkiokeen eskubide guztiak galduko ditu.



TOLOSAKO
UDALA

Izangaiak prestakuntza eta praktika aldia gaitutako ez balu, izendatua izateko eskubide guztiak galduko lituzke Alkatetzak hartutako erabaki arrazoitu baten bidez. Hein berean, automatikoki, zerrendako hurrengo hautagaia izendatuko litzateke praktiketan.

14.- Izendapena eta uztea

Izendapena aldi baterakoa izango da eta ezeztatua geldituko da plaza karrerako funtzionario batez hornitzen denean edo Administrazioak irizten dionean ez dagoela behin-behineko hornitzea egiteko urgentzia arrazoirik, kalte-ordainak izateko eskubiderik gabe.

Hala izendaturiko pertsonak legeriak karrerako funtzionarioei ematen dizkien eskubide eta betebeharrak berdinak izango ditu, lanpostuan iraunkortasunez egoteko eskubidea izan ezik.

15.-Izaera pertsonaleko datuak eta lan-poltsaren eraketa

Izangaiei eskatzen zaizkien datu pertsonalak fitxategi batera pasako dira eta hautaketa prozesua kudeatu ahal izateko tratamendu bat emango zaie, baina datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen legeria aplikatuko zaio fitxategiari; beraz, izangaiek Udal honetan datuak eskuratu, ezabatu, aurka egin eta zuzentzeko eskubidea erabili ahal izango dute.

Bestalde, identifikazio datuak eta hizkuntza eskakizunak edo bere baliokideak egiaztatzeko datuak HAAE erakundeari lagako zaizkio hizkuntza eskakizunen egiaztapenen erregistroan dauden datuekin alderatzeko, baita hautaketa prozesuari dagokion hizkuntza eskakizunaren egiaztapen frogara behar bezala prestatu eta egiteko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.2 artikuluan esaten dena betez.

Horretaz gain, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia kontutan hartuz, eta izangaiek berariazko baimena eman aurretik, hautaketa prozesu honetako frogak gaitutu dituzten izangaiei datuak beste Administrazio Publiko batzuei eman ahal izango zaizkie, hala eskatuz gero, betiere antzeko beharrei erantzun ahal izateko.

Halaber, Udalak berak lan-poltsa bat eratzeko erabiliko ditu. Lan-poltsa horretan azkeneko puntuazioaren arabera hurrenkera izango da (puntu gehien lortu duenetik hasita), eta bakoitzak egiaztatutako hizkuntza eskakizuna zehaztuko da (4. edo 3. hizkuntza eskakizuna). Baliagarri izango da antzeko titulazioko lanpostuetako beharkizunak betetzeko.



TOLOSAKO
UDALA

16.- Gorabeherak, inpugnazioak eta legedia osagarria

Epaimahaiak ahalmena izango du gertatzen diren zalantzak argitzeko eta oinarri-arau hauetan agertzen ez den guztian hautaketa prozesua behar bezala egiteko behar diren akordioak hartzeko.

Deialdia, oinarri-arauak eta haietatik eta Epaimahaiaren jardueretatik datozen egintza administratiboak inpugnatu egin ahal izango dituzte interesatuek, Administrazio Publikoen Prozedura Administrazio Erkidearen 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarri-arauetan jasota ez datorren guztian, ondokoek aginduko dute: Estatuko Administrazioaren zerbitzuan dauden Langileak sartzeko Erregelamendu Orokorrak, 364/1995 Errege Dekretuak onartu duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak eta haren hurrengo aldaketak, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek, bereziki Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak xedaturikoak.

Tolosan, 2019ko otsailaren 7an
ALKATE-UDALBURUAK



TOLOSAKO
UDALA

I ERANSKINA

GAIAK

GAI OROKORRAK

1. Toki Araubidearen Oinarrian arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
2. Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Toki Erregimenaren gaiaren testu bateratuari buruzkoa.
3. 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamentua eta Araubide Juridikoa onartzen dituena.
4. Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa.
5. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen dituena.
- 6.- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duena.
7. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari eta Eskubide Digitaleen Bermeari buruzkoa.
8. Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa.
9. 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Entitateen Ondasunen Araudia onartzen duena.
10. Azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa.
11. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 8ko 9/2017 Errege Dekretu Legegilea.
12. 817/2009 Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
13. 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.



TOLOSAKO
UDALA

14. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal herriaginteen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak.

GAI ESPEZIFIKOAK

1. Maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa. Lurralde-antolamenduko tresnak.

2.28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onesteko dena.

3. Urtarrilaren 4/2016 Dekretua, zeinaren bidez Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegiakuantifikazioari dagokionez. Kontzeptu orokorrak.

4. Tolosako (Tolosaldea) Jardute Eremuko Lurraldearen Zatiko Planari (Hasierako onarpena bakarrik du) ezingo degu jarri

4. 262/2004 Dekretua, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana onartzekoa.

5. 415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde kantauriarra) behin betiko onesten duena.

6.449/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, EAEko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa behin betiko onartzen duena.

7. 177/2014 Dekretua, irailaren 16koa, zeinak behin betiko onartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.

8. Ekainaren 23ko 1/2006 Legea, Urarena: Arau eta printzipio orokorrak. Arau orokorrak

9. 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

10. Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoa.



TOLOSAKO
UDALA

11. 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
12. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
13. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.
14. 123/2012 DEKRETUA, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa.
15. 3288/1978 Errege Dekretua, abuztuaren 25ekoa, Lurzoru eta hiri antolamenduari buruzko arautegiaren legea garatu eta aplikatzeko hirigintza-kudeaketarako arautegia onartzen duena.
16. 2187/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, lurzoru eta hiri antolamenduaren arautegiari buruzko legea garatu eta aplikatzeko hirigintza-disziplinaren arautegia onartzen duena.
17. 2159/1978 Errege Dekretua, ekainaren 23koa, Lurzoru eta hiri antolamenduari buruzko arautegia ezartzen duen legea garatu eta aplikatzeko plangintza-arautegia onartzen duena.
18. 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
19. 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
20. 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen ebaluazioari buruzkoa. Planak eta programak.
21. 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, urtarrilaren 11koa, proiektuek ingurumenaren gainean duten inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
22. 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzkoa.
23. 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. Xedea. Definizioak. Lurzoruen kalitatearen deklarazioaren kasuak
24. Irailaren 30eko 165/2008 Dekretua, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.
25. Uztailaren 28ko 22/2011 Legea, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.



TOLOSAKO
UDALA

26. 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa.
27. 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
28. 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen ardurari buruzkoa.
29. Abenduaren 26ko 12/2012 Legea, merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzkoa.
30. Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.
31. Azaroaren 5eko 38/1999 Legea, Eraikuntzaren Antolamendua arautzen duena.
32. Uztailaren 3ko 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari buruzkoa.
33. 306/1998 Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurre-egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoak buruzkoa.
34. Abenduaren 4ko 20/1997 Legea, Irisgarritasuna Sustatzekoa: Irisgarritasuna bermatzeko eta kontrolatzeko neurriak.
35. Eraikuntzaren Kode Teknikoa. I. atala. Xedapen orokorrak, baldintza tekniko eta administratiboak.

Kontutan hartu behar dira legeak onartu ondoren egindako aldaketak, azterketa egunean indarrean daudenak.